



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Gipuzkoako udalen finantza kaudimenaren rankinga ratio aipagarrienen analisiaren arabera

Gradu Bukaerako Lana

Egilea: Idoia Goenaga Aramendi

Zuzendaria: Agustin Erkizia Olaizola

DONOSTIAKO ENPRESA IKASKETEN UNIBERTSITATE ESKOLA

(DONOSTIA)

Lana burutze urtea: 2015

Lanaren defentsa urtea: 2015

AURKIBIDEA

I.	SARRERA.....	1
II.	AZTERKETAREN TESTUINGURUA: egin izan diren rankingak	3
	Nafarroako Kontuen Ganbera	3
	Sielocal	4
	Biztanleko zorrari buruzkoak.....	6
	Kreditu kalifikazio agentziak.....	6
	Banku eta finantza erakundeak.....	11
	Beste ranking batzuk.....	12
III.	GIPUZKOAKO UDALETXEAK.....	13
IV.	LURRALDE ANTOLAKETA ETA ARAUDIA	16
V.	AURREKONTUEN OSAKETA	20
	Kontzeptua eta sailkapena	20
	Aurrekontu kredituen erregimen orokorra.....	24
VI.	GIPUZKOAKO UDALETXEEN KAUDIMENA	25
	Zer da kaudimena?.....	25
	Herritarren informazio beharra	25
VII.	NOLA NEURTU DAITEKE KAUDIMENA UDALETXEETAN?	29
	<i>Aurrezki arrunt gordina</i>	29
	<i>Aurrezki arrunt garbia</i>	29
	<i>Zor bizia</i>	30
	<i>Zorraren itzultzea</i>	31
	<i>Superabit/defizit ez finantzarioa</i>	31
	<i>Finantza karga edo legezko zorpetze maila</i>	32
	<i>Zorpetze muga</i>	32
	<i>Bataz besteko ordainketa epea</i>	33
	<i>Bataz besteko kobru epea</i>	34
	<i>Diruzaintza gerakina</i>	34
VIII.	ZEIN DIRA NEURRIRIK EGOKIENAK?	36
IX.	RANKINGA: BALORAZIO PROZESUA	38
X.	ONDORIOAK	55
XI.	BIBLIOGRAFIA	63
XII.	ERANSKINAK.....	75

TAULEN AURKIBIDEA

TAULA 1: EPE LUZEKO KALIFIKAZIOEN ESANAHIA.....	9
TAULA 2: EPE LABURREKO KALIFIKAZIOEN ESANAHIA.....	10
TAULA 3: EPE LABUR ETA LUZEAREN ARTEKO BALIOKIDETASUNA	11
TAULA 4: GIPUZKOAKO UDALAK ESKUALDEEN ARABERA.....	13
TAULA 5: GIPUZKOAKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA.....	14
TAULA 6: GIPUZKOAKO HERRIEN SAILKAPENA BIZTANLE KOPURUAREN ARABERA.....	14
TAULA 7: AUTONOMIA ERKIDEGOEN ETA ESTATUAREN KONPETENTZIAK	17
TAULA 8: SARRERA ETA GASTUEN SAILKAPEN EKONOMIKOA.....	21
TAULA 9: GASTUEN SAILKAPEN FUNTZIONALA.....	23
TAULA 10: AURREKONTUEN KREDITUEN LOTURA MAILA	24
TAULA 11: AURREZKI GORDINAREN MAXIMO, MINIMO ETA BATAZ BESTEKOAK.....	38
TAULA 12: BIZTANLEKO AURREZKI GORDINAREN BALORAZIOA.....	39
TAULA 13: AURREZKI GARBIAREN MAXIMO, MINIMO ETA BATAZ BESTEKOAK.....	39
TAULA 14: AURREZKI GARBIAREN BALORAZIOA.....	40
TAULA 15: ZOR BIZIAREN MAXIMO, MINIMO ETA BATAZ BESTEKOAK	41
TAULA 16: ZOR BIZIAREN BALORAZIOA	41
TAULA 17: ZORRAREN ITZULTZEAREN BALIO MAXIMO, MINIMO ETA BATAZ BESTEKOAK.....	42
TAULA 18: ZORRAREN ITZULTZEAREN BALORAZIOA.....	44
TAULA 19: SUPERABIT/DEFIZITAREN BALIO MAXIMO, MINIMO ETA BATAZ BESTEKOAK.....	44
TAULA 20: SUPERABIT/DEFIZITAREN BALORAZIOA	45
TAULA 21: FINANTZA KARGAREN BALIO MAXIMO, MINIMO ETA BATAZ BESTEKOAK	46
TAULA 22: FINANTZA KARGAREN BALORAZIOA, URTERO	49
TAULA 23: ZORPETZE MUGAREN BALIO MAXIMO, MINIMO ETA BATAZ BESTEKOAK	50
TAULA 24: ZORPETZE MUGAREN BALORAZIOA	50
TAULA 25: DIRUZAINNTZA GERAKINAREN BILAKAERA AURREKO EKITALDIAREKIKO	51
TAULA 26: BIZTANLEKO DIRUZAINNTZA GERAKINAREN BALIO MAXIMO, MINIMO ETA BATAZ BESTEKOAK	52
TAULA 27: DIRUZAINNTZA GERAKINAREN BILAKAERAREN BALORAZIOA.....	53
TAULA 28: BIZTANLEKO DIRUZAINNTZA GERAKINAREN BALORAZIOA	54
TAULA 29: HERRI BAKOITZAREN PUNTUAZIOA URTEZ URTE.....	57
TAULA 30: LEHENENGO 5 POSTUETAKO UDALETXEAK URTEZ URTE.....	59
TAULA 31: AZKENEKO 5 POSTUETAKO UDALETXEAK URTEZ URTE.....	60
TAULA 32: BIZTANLERIA TARTEEN ARABERAKO PUNTUAZIOAK.....	61
TAULA 33: BIZTANLERIA TARTEEN ARABERAKO BATAZ BESTEKO PUNTUAZIOAK.....	61

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

GRAFIKO 1: EPE LABURREKO KAUDIMENAREN ARABERAKO RANKINGA	5
GRAFIKO 2: BIZTANLEKO ZORRIK HANDIENA DUTEN 10 UDALAK	6
GRAFIKO 3: : FITCH RATINGS-EK EGINDAKO ESPAINIAR ENTITATE PUBLIKOEN BALORAZIOA.....	8
GRAFIKO 4: GIPUZKOAKO UDALEN BIZTANLE KOPURUA	15
GRAFIKO 5: GIPUZKOA ETA EUSKAL HERRIKO BATAZ BESTEKO ADINA	16
GRAFIKO 6: SEKTORE PUBLIKOAREN SAILKAPENA.....	19
GRAFIKO 7: INFORMAZIOAREN EZAUGARRIAK.....	28
GRAFIKO 8: DIRUZAINNTZA GERAKINAREN KALKULUA.....	35
GRAFIKO 9: GABIRIAKO ZORRAREN ITZULTZE EPEAREN BILAKAERA.....	43
GRAFIKO 10: BALIARRAINEKO FINANTZA KARGA	46
GRAFIKO 11: LIZARTZAREN FINANTZA KARGA.....	47
GRAFIKO 12: ADUNAKO FINANTZA KARGAREN BILAKAERA	47
GRAFIKO 13: IKAZTEGIETAKO FINANTZA KARGA	48
GRAFIKO 14: LAZKAOKO FINANTZA KARGAREN BILAKAERA.....	48
GRAFIKO 15: OREXAKO FINANTZA KARGA.....	49
GRAFIKO 16: BALIARRAINEKO BIZTANLEKO DIRUZAINNTZA GERAKINAK IZAN DUEN BILAKAERA52	
GRAFIKO 17: BIZTANLERI MAILEN ARABERA JASOTAKO BATAZ BESTEKO PUNTUAZIOAK	61

AKRONIMOEN GLOSARIOA

EAE: Euskal Autonomi Erkidegoa

BCE: Banco Central Europeo

GFA: Gipuzkoako Foru Aldundia

IOSCO: International Organization of Securities Commissions

OICV: Organización Internacional de Comisiones de Valores

FEF: Foro de Estabilidad Financiera

ABE: Autoridad Bancaria Europea

INE: Instituto Nacional de Estadística

PEC: Pacto de Estabilidad y Crecimiento

BOE: Boletín Oficial del Estado

NFE: Nafarroako Foru Erkidegoa

AECA: Asociación Española de Contabilidad y Administración de empresas

EUDEL: Euskadiko Udalen Elkarte

BFA: Bizkaiko Foru Aldundia

LFB: Local Finance Benchmarking

NCGA: National Council on Governmental Accounting

GASB: Governmental Accounting Standards Board Statements

FASB: Financial Accounting Standards Board

IGAE: Intervención General de la Administración del Estado

IFAC: International Federation of Accountants

GIA: Gestión Integral de Ayuntamientos

I. SARRERA

Diru publikoaren erabilera beti izan da herritarren eztabaidagai eta ardura, izan ere, zati batean, beraien ekarpenek osatzen dituzte funts publikoak. Gainera, udaletxeen egoera ekonomiko - finantzarioa nolakoa den jakiteko jakin-mina ere bada herriko kaleetan, alkate eta udaleko langileen gestioa zer moduzkoa izan den jakite aldera. Gaur egun informazio gardentasunaren aldeko joera nabarmena nabari daitekeen arren, Gipuzkoaren kasuan, ez da hauen rankingik burutu orain arte.

Esan daiteke, beraz, gradu bukaerako lan honen helburuetako bat, Gipuzkoako udalen egoera ekonomiko – finantzarioa ezagutzeta dela, ondoren, udaletxe guztiak elkarrekin konparatu eta rankinga burutzeko asmoz.

Esan beharra dago, ranking bat egitea eztabaida sor dezakeen lan bat dela, izan ere, udaletxeak baloratzeko garaian erabilitako irizpideei buruz iritzi ezberdinak egon daitezkeenez, desadostasunak sor daitezke udaletxe bakoitzak rankingean lortu duen postuari dagokionez. Lan honetan irizpide baten baitan burutu da rankinga, baina onartu beharra dago beste modu batera eginez gero, emaitza ezberdina izan daitekeela.

Lan honen beste helburuetako bat, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Graduan lortutako ezagutzeta teoriko eta praktikoa erabili eta neurri honetako azterketak burutu ahal izateko beharrezkoak diren gaitasunak garatzea da.

Gradu bukaerako lan honek, Gipuzkoako udaletxeek 2008-2013 bitartean aurkeztutako likidazio ekonomikoetako datuak aztertu eta hartuko ditu kontuan. 2014ko datu guztiak ez daude oraindik erabilgarri, beraz, analisisa 2013.urtean amaitu behar izan da. Lan hau burutu ahal izateko, kontabilitate publikoaren arloko ezagutzak izatea ezinbestekoa izango da.

Lanaren haserako atalean, gai honen egungo egoera aztertu da, hau da, orain arte egin izan diren rankingak aurkitu dira. Lanean hasi aurretik, gai honen inguruan burututako lanak aztertzea garrantzitsua denez, arlo ezberdinetan egin izan diren rankingei buruzko informazio bilaketaren ondorioak azalduko ditut. Bilaketa bibliografikoa egingo da informazio hori eskuratu ahal izateko.

Hurrengo bi ataletan, Gipuzkoaren egoerari buruzko analisi bat egingo da. Lehenik eta behin, aztergai izango diren udaletxeei buruzko informazioa azalduko da, hau da, informazio orokorra, eta ondoren, Gipuzkoari eragiten dieten erakunde ezberdinen deskribapena, hots, Gipuzkoako lurralde antolaketa berezia eta bere araudiak.

Jarraitzeko, kaudimen kontzeptuan sakontzen hasiko da, bere definizioan alegia. Gainera, gaur egungo informazio gardentasunerako joerari buruzko atal bat ere garatuko da, egungo gizartearen ezaugarrietako bat baita.

Kaudimena zer den ongi ulertu ondoren, hau neurtu ahal izateko adierazle eta ratio ezberdinak landuko dira. Hauen erabilgarritasunak eta alde txarrak baloratuko dira, ondoren, rankingean erabiliko diren ratioak aukeratu ahal izateko.

Hori dela eta, udalen finantza kaudimena erakusten duten hainbat ratio eta adierazle egon arren, lan honetan erabili ahal izango ditugunak aztertu eta aukeratuko

dira beste atal batean. Batzuk, baztertu egin beharko dira, bai datuak lortzeko ezintasunengatik edota kaudimenaren definiziotik urruntzen direlako.

Azkenik, lanaren azken atalean, rankinga egingo da. Horretarako, lehenik eta behin, Gipuzkoa osatzen duten 88 udalen likidazio ekonomikoak landu dira, esan bezala, 2008-2013 urteen bitartean. Likidazio ekonomiko hauek laneko eranskinen artean izango dira, edozein momentutan rankingeko adierazle eta ratioen kalkulari buruzko dudak argitu ahal izateko. Hauen lorpenerako, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza departamentuaren "*Udalgida*" atala izango da informazio iturri nagusia. Ondoren, adierazle eta ratioen kalkuluekin jarraituko da eta, amaitzeko, adierazle edo ratioen zenbatekoen balorazioa. Horretarako, aurrez aipatutako likidazio ekonomikoetako datuak ezinbestekoak izango dira. Azken urrats honek garrantzia handia izango du, izan ere, ratio bakoitza baloratzeko garaian erabilitako irizpidearen arabera, rankingaren emaitza bat edo bestea izan daiteke.

II. AZTERKETAREN TESTUINGURUA: egin izan diren rankingak

Azterketa sakonagoa egiten hasi baino lehen, aurretik mota honetako analisirik egin izan al den ikertzea garrantzitsua deritzot. Esan beharra dago, Gipuzkoako eta Euskal Autonomi Erkidegoko (EAE) udaletxeei buruzko informazio gardentasuna eta ratio ezberdinei buruzko datuak nagusi direla sarean, bereziki, Udalgida-ren web orrian (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2015b).

Nafarroako Kontuen Ganbera

Nafarroaren kasuan ordea, 2012.urtean Nafarroako Kontuen Ganberak, Nafarroako 9.000 biztanle baino gehiagoko udaletxeen analisi ekonomiko - finantzarioa eta bere eboluzioari buruzko txosten bat argitaratu zuen (Nafarroako Kontuen Ganbera, 2012/07/04). Bertan, 11 udaletxe nafar aztertu zituzten.

Lehenik eta behin, hauen aurrekontuetako gastu eta sarrerei buruzko datuen eboluzioa aztertu zuten, zor bizia, zor biziaren eta aurrezki gordinaren arteko erlazioa, gastu eta sarrerak biztanleko izan duten eboluzioa

Ondoren, kaudimenari buruzko hainbat ratio kalkulatu zituzten, kaudimen ratioa (aktibo korrontea zati pasibo korrontea), berehalako likidezia, epe laburreko kaudimena, autonomia maila, zor maila orokorra

Azkenik, bere txostenaren lehen eranskinean, 2010eko 9.000 biztanletik gorako udaletxe horien ranking bat burutu zuen, horretarako, hainbat adierazle kontuan hartu zituelarik, konkretuki, 17 adierazle izan ziren. 17 adierazle hauetako bakoitzari, puntuazio minimo eta maximo bat finkatu dio, eta ondoren, udaletxe bakoitzaren puntuazio totala kalkulatu, udaletxe bakoitzak rankingean izango duen postua erabaki zen.

Beraz, rankinga egiteko garaian, ez du ratio edo adierazle bakar bat hartu kontuan, hainbat baizik, eta bakoitzari garrantzi erlatiboa emanez, ratio eta adierazle guztien balioak puntuaketa batean laburbiltzen dira, konkretuki 180 puntu maximotik, udaletxe bakoitzak puntuaketa ezberdina lortuko duelarik.

Estatu mailan, autonomi erkidego ezberdinen aurrekontuei buruzko informazio osoa aurkitu daiteke, baita estatuko edo entitate publikoenak (Ministerio de Hacienda y Administraciones Publicas - *Oficina virtual para la coordinación financiera con las entidades locales, 2015*) ere, Estatuko Hazienda eta Administrazio Publikoaren Ministerioaren bidez (Ministerio de Hacienda y Administración Pública) eta bere estatistika atalaren bidez (Ministerio de Hacienda y Administración Pública).

Aipatu beharra dago, Sielocal erakundeak egindako lana. Sielocal gardentasun ekonomikoaren aldeko organismo bat da, eta honek, hainbat txosten burutu ditu, eta hauen artean Espainiako udaletxeen, autonomi erkidegoen eta probintzien epe laburreko eta berehalako kaudimenari buruzko txostenak nabarmendu daitezke, baita udaletxerik "saneatuenak" zein diren dioen txostena edota Espainiako udaletxeen biztanleko zorrari buruzko txostena (Sielocal, 2014) ere. Azkenekoz, 2013.urtean argitaratu zituen. Erakunde honek egindako txostenetarako, Hazienda eta Administrazio Publikoko Ministeriotik lortutako informazioa erabili du.

Aipatutako lehenengo txostenean (Sielocal, 2015/01/05), autonomi erkidegoen kaudimena neurtu du eta grafikoetan islaturik ere azaltzen da informazio hori. Autonomi erkidego bakoitzaren barnean, udaletxeen epe laburreko kaudimena neurtu du, eta ondoren, autonomia erkidego bakoitzean izango postua adierazi du. Horretarako, aurretik esan dudan bezala, bi zerrenda ezberdin egin ditu, berehalako kaudimenarena eta epe laburreko kaudimenarena (bi txosten ezberdin). Honela kalkulatu du entitate publikoen kaudimena:

$$\text{Berehalako likideziaren indizea} = \frac{\text{Diruzaintzako fondo likidoak}}{\text{Ordaintzeko obligazio totalak}} \times 100$$

Diruzaintzako fondo likidoen barruan, banku eta kaxako dirua barneratzen da, baita epe laburrean likido bihurtu daitezkeen inbertsioak ere. Ratio honek, aurrekontu eta aurrekontuz kanpoko zorren zein portzentaje estali daitekeen berehala erabilgarri dagoen likideziarekin.


Epe laburreko likideziaren indizea =

$$\frac{\text{Fondo likidoak} + \text{kobru eskubide netoak} - \text{kobrantza dudagarriak}}{\text{Ordaintzeko obligazio netoak}} \times 100$$

Ratio honek, berriz, entitate publikoen fondo likido eta kobratzeko dituzten partidek, egin beharreko ordainketei dagokionez suposatzen duten portzentajea kalkulatu du, eta horri esker, entitate publiko bakoitzaren aktibo zirkulatzailerako elementu likidoenak, burutu beharreko ordainketei aurre egiteko duen gaitasuna neurtzen du.

Hurrengo irudian, esaterako, ikus daiteke, bere azterketaren arabera, epe laburreko kaudimen handiena duten autonomi erkidegoen rankinga, grafikoki adierazita.

Grafiko 1: Epe laburreko kaudimenaren arabeko rankinga



Iturria: Sielocal webgunea. Autonomi erkidego ezberdinen epe laburreko kaudimena adierazten du, handienetik txikienera ordenatuta.


Bestalde, erakunde berak Espainiako udaletxetik “saneatuenak” zein diren dioen txostena ere argitaratu du bere web orrian (Sielocal, 2015/01/20). Bertan, 2013.urtean, egoera finantzario egokienean aurkitzen ziren udaletxeen analisi bat egin du, horretarako, 3 adierazle aztertuz:

1. Udalen aurrezki garbiaren zenbatekoa
2. Gastu orokorretarako diruzaintza gerakin handiena dutenak
3. Zor biziaren zenbatekoa sarrera ez finantzarioen %30 baino txikiagoa izatea.

Gainera, udaletxeen zerrenda bat burutu du, 2013.urtean egoera finantzario egokiena zuten udaletxeen izenak aipatuz (Sielocal, 2015/01).

Azkenik, erakunde honen beste txosten bat aipatu behar da: udalek 2013.urtean biztanleko zuten zorrari buruzko txostena (Sielocal, 2014/07/01). Bertan, Espainiako 8.117 udal aztertu ditu, eta hauen biztanleko zorra kalkulatu eta honen azterketa bat egiteaz gain, biztanleko zorrik handiena duten udalen rankinga ere egin du. Zorraren kasuan, biztanleko datuak kalkulatzeko ezinbestekoa da, izan ere, bestela, biztanle kopuru handiena duten udalak izango baitute zor zenbateko handiena. Hori dela eta, grafiko honetan laburbiltzen du burutako rankinga, biztanleko datuak kontuan hartuz, eta biztanleko zorrik handiena duten 10 udal soilik barneratuz:

Grafiko 2: Biztanleko zorrrik handiena duten 10 udalak



Iturria: Sielocal

Biztanleko zorrari buruzkoak

Azpitarragarria da, gainera, Sielocal-*ez* gain, prentsan argitaratzen diren kontabilitate publikoei buruzko zerrenda edo sailkapen gehienak, biztanleko duten zorrari buruzkoak direla. Adibide mordoa aurki daitezke egunkarietan, esaterako, 2014an ABC-n argitaratutakoa (Jesus Sérvulo Gonzalez, 2014). EAE Business School unibertsitateak ere, Espainiako udalik zorduneneni buruzko artikulua garatu zuen (EAE Business School, 2014/04/28).

AIS Group enpresak ere, estatuko udalen biztanleko zorra mapa batean irudikatu du (AIS Group & ESRI), baita Atlasa Euskal Herriari buruzko hainbat arlotako (demografia, ekonomia, sozietatea eta ingurunea) datuak bistaratzeko aukera ematen digun web atariak ere(Atlasa).

Kreditu kalifikazio agentziak

Bestalde, entitate publikoez gain, enpresa pribatuen rankingak edota balorazioak egin izan dira. Esaterako, Fitch, Moody's edota Standard's&Poors bezalako erakundeek, enpresa edo erakunde ezberdinak baloratu eta hauei nota bat ematera dedikatzen dira. Kalifikazio agentzia hauek, enpresa eta erakunde publikoen kreditu kalitatea neurtzea dute helburu, hau da, ordainketa obligazioei aurre egiteko duten gaitasuna neurtzen dute (BCE, 2009/05). Balorazio agentzia hauek, azken urteetan garrantzia handia lortu dute, eta merkatuko parte hartzaile askok barneratzen dituzte balorazio hauek beraien kreditu eta inbertsio balorazioetan.

2003.urtetik aurrera, kalifikazio agentzia hauen erregulaziorako aroa hasi zen, garai hartan sortutako hainbat iskanbilen ondorioz. Europar Batasunean eta Estatu Batuetan hainbat enpresen porrota aurreikusteko gai izan ez zirenez, hauen jarduera eta prozesua kontrolatzeko arauak onartu ziren. Maila internazionalan, Balore Batzordearen Erakunde Internazionala, erdaraz Organización Internacional de Comisión de Valores (IOSCO, 2003/09/25) deiturikoa (OICV), izan zen erakunde legegilea. Europa mailan, Parlamentu Europarrak, lege berrien beharrik ez zegoela ondorioztatu zuen, kalifikazio agentziei aplikagarriak diren zerbitzu finantzarioei buruzko direktibak eta kalifikazio agentziek dituzten auto erregulazioak, portaera kodeak, alegia, (IOSCO erakundearekin bat datozenak), sor zitezkeen arazoan aurrean erantzuna emateko gai zirela erabaki baitzuen.

Agentzia hauek, ordea, badituzte ahulguneak ere, egituratutako tresna finantzarioak baloratzeko garaian, esaterako. Gainera, independentzia falta ere gaitzetsi izan zaie, BCE-ren txostenean esaterako, zor jaulkitzaileak izan ohi zirelako agentziari ordaintzen ziotenak. Foro de Estabilidad Financiera deituriko erakundeak ere, hainbat akats aurkitu zituen agentzia hauen metodo eta jardueretan (Foro de Estabilidad Financiera, 2008/04/07).

Azkenik, 2008.urtean, Europar Batzordeak, lege proposamen bat egin zuen (Parlamento Europeo, 2009), kreditu kalifikaziorako ezinbestekoak diren baldintzak zehaztuz, merkatuan konfiantza hazteko eta inbertitzaileak babesteko asmoz.

Fitch erakundeak, esaterako, hainbat arloetako enpresa edota erakundeak aztertu eta ebaluatzen ditu, finantza erakundeak, aseguru enpresak, enpresa pribatuak ... etab. Horien artean, finantza publikoko erakunde internazionalen atal bat dauka. Fitch-en atal honek, gobernuen eta gainontzeko entitate publikoen zor lokala eta atzerrikoa aztertzen du, modu horretan, inbertitzaileei zein merkatutan inbertitzea komenigarriena den informatu ahal dielarik.

Bere sektore publikoaren atalean arakatuz (Fitch Ratings), Espainiako komunitate erkidego ezberdinen balorazioa aurki daiteke, bai epe luzera (LT), baita epe laburrera ere (ST). Bertan, ikus daiteke, Espainiaren kasuan, 26 entitate publiko edo gobernu entitate aztertu dituela, eta horien artean, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabak, A nota lortu dutela epe luzean. Epe laburra, urtebete baina laburragoko epemuga duten zorrei lotutakoa da, eta epe luzekoa, berriz, urtebete baino luzeagoa dutenentzat. Gainera, kalifikazio eskalak bi taldetan banatzen dira: inbertsiokoak eta ez inbertsiokoak. Inbertsio arloan, kapitala eta interesak garaian ordaintzeko gaitasuna neurtzen da eta ez inbertsiokoek, berriz, obligazioak ez betetzeko duten probabilitatea neurtzen dute.

Grafiko 3: : Fitch ratings-ek egindako espainiar entitate publikoen balorazioa

Latest Rating Date	Entity	LT IDR/LT Rtg (FC)	ST IDR/ST Rtg (FC)	LT IDR/LT Rtg (LC)	ST IDR/ST Rtg (LC)	Country
10-oct-2014	Gipuzkoa, Historical Territory of	A ●	F1	A ●		Spain
10-oct-2014	Bizkaia, Historical Territory of	A ●	F1	A ●		Spain
06-mar-2015	Alava, Historical Territory of	A ●	F1	A ●		Spain
02-may-2014	Sociedad Estatal de Participaciones Industriales (SEPI)	BBB+ ●	F2	BBB+ ●		Spain
18-jun-2014	Corporacion De Reservas Estrategicas de Productos Petroliferos (CORES)	BBB+ ●	F2	BBB+ ●		Spain
03-oct-2014	Madrid, City of	BBB+ ●	F2	BBB+ ●		Spain
02-may-2014	ADIF- Alta Velocidad	BBB+ ●	F2	BBB+ ●	F2	Spain
03-oct-2014	Barcelona, City of	BBB+ ●	F2	BBB+ ●		Spain
06-mar-2015	Basque Country, Autonomous Community of (The)	BBB+ ●	F2	BBB+ ●		Spain
03-oct-2014	Pamplona, City of	BBB+ ●	F2	BBB+ ●		Spain
02-may-2014	Administrador de Infraestructuras Ferroviarias (ADIF)	BBB+ ●	F2	BBB+ ●	F2	Spain
20-feb-2015	Asturias, Autonomous Community of	BBB ●	F2	BBB ●		Spain
04-mar-2015	Instituto de Finanzas de Cantabria	BBB ●	F2	BBB ●		Spain
02-may-2014	Pequenos y Medianos Astilleros (Pymar)	BBB ●	F3			Spain
23-ene-2015	Madrid, Autonomous Community of	BBB ●	F2	BBB ●		Spain
05-dic-2014	Cantabria, Autonomous Community of	BBB ●	F2	BBB ●		Spain
12-dic-2014	La Rioja, Autonomous Community of	BBB ●	F2	BBB ●		Spain
20-feb-2015	Murcia, Autonomous Community of	BBB- ●	F3	BBB- ●		Spain
07-nov-2014	Valencia, Autonomous Community of	BBB- ●	F3	BBB- ●		Spain
23-ene-2015	Catalonia, Autonomous Community of	BBB- ◆	F3 ◆	BBB- ◆		Spain
23-ene-2015	Institut Catala de Finances	BBB- ◆	F3 ◆			Spain
07-nov-2014	Andalusia, Autonomous Community of	BBB- ●	F3	BBB- ●		Spain
23-ene-2015	Castile-La Mancha, Autonomous Community of	BBB- ●	F3	BBB- ●		Spain
07-nov-2014	Canary Islands, Autonomous Community of the	BBB- ●	F3	BBB- ●		Spain
07-nov-2014	Instituto Valenciano de Finanzas	BBB- ●	F3	BBB- ●		Spain

Iturria: Fitch erakundea – Sektore publikoa internazionala – Espainia

https://www.fitchratings.com/gws/en/sector/entity/internationalPublicFinance?Ns=LT_RTNG_1_49_CD_ID/O&Ne=4294289122&N=4294289037+416+4294281751+1211&_=1426331695975

Epe luzeko balorazioa AAA-tik hasi eta D-raino doa, alfabetikoki, eta epe laburreko balorazioa, berriz, F1, F2, F3, B, C, RD eta D letrekin adierazten da. Ondorengo tauletan adierazten da kalifikazio bakoitzaren esanahia.

Taula 1: Epe luzeko kalifikazioen esanahia (Fitch Ratings, 2014/12a)

AAA	Kreditu Kalitate Gorena . Kalifikazio honek, ordainketa eza izateko arrisku probabilitate txikiena adierazten du. Kalifikazio hau finantza konpromisoak gauzatzeko duen gaitasuna oso altua den kasuetan soilik esleitzen da. Gaitasun honi aurreikus daitezkeen gertaerek ia inoiz ez diote eragiten.
AA	Oso Kalitate Handiko Kreditua. Ordainketa eza izateko arriskurako probabilitatea oso txikia dela esan nahi du. Finantza konpromisoak gauzatzeko gaitasun handia dutenean esleitzen da eta aurreikus daitezkeen gertaerek eragiteko ahalmena ez da oso nabarmena.
A	Kreditu Kalitate Handia. Ordainketa eza arriskurako probabilitate txikia erakusten du. Finantza konpromisoari aurre egiteko gaitasuna dute eta ingurune eta ekonomiako baldintzek aurreko balorazioetan baino eragin handiagoa izan dezakete.
BBB	Kreditu Kalitate Ona. Momentuan, ordainketa eza gertatzeko arriskuak baxuak direla esan nahi du. Finantza konpromisoak aurrera eramateko gaitasuna egokia da, baina inguruko edo ekonomiako baldintzak okerrera eginez gero, hauen eragina handiagoa da aurreko kasuetan baino.
BB	Espekulatiboa. Finantza konpromisoen ordainketa eza jazotzeko ahultasun handiagoa erakusten du, hau da, arrisku handiagoa, bereziki, testuinguru ekonomikoan egoera kaltegarriren bat gertatuz gero.
B	Oso espekulatiboa. Finantza konpromisoen ordainketa eza izateko arrisku garrantzitsua presente dagoela esan nahi du, baina mugatutako segurtasun-marjina bat geratzen da oraindik. Finantza konpromisoak une honetan betetzen ari dira, baina, hala ere, ordainketekin jarraitzeko gaitasuna enpresa eta testuinguru ekonomikoaren menpe dago.
CCC	Kreditu arrisku nabarmena. Kalifikazio hau duten entitateetan, finantza konpromisoen ordainketa eza gertatzea aukera posible bat da.
CC	Kreditu arrisku maila oso altua. Kalifikazio hau emateak esan nahi du litekeena dela motaren bateko ordainketa eza gauzatzea.
C	Kreditu arriskuaren maila handia. Finantza konpromisoen ordainketa eza berehalakoa eta saihestezina datorrela adierazi nahi du.
D	Ordainketa eza. Egoera hau, normalean, honako hiru egoeretako bat bezala definitu ohi da: <ul style="list-style-type: none"> - Obligazioen ordainketa edota interesen ordainketa adostutako baldintzetan ezin gauzatu izatea. - Enpresa edo entitatea porrot egoeran, likidazio egoeran edota ordainketa etenduran sartzen bada. - Ordainketa obligazioak aldatzea, adostutako baldintzak, alegia, ordainketa ez bat saihestu ahal izateko.

Iturria: Norberak eginda

Taula 2: Epe laburreko kalifikazioen esanahia (Fitch Ratings, 2014/12b)

F1	Epe laburreko kreditu kalitate gorena. Finantza konpromisoak, puntual burutu ahal izateko duen berezko gaitasun mailarik altuena adierazten du. Atzetik, “+” ikurra eraman dezake, kredituaren ezaugarri onuragarriren bat azpimarratzeko.
F2	Epe laburreko kreditu kalitate ona. Finantza konpromisoak puntual burutzeko berezko gaitasun ona duela adierazten du.
F3	Epe laburreko kreditu kalitate nahikoa. Finantza konpromisoak puntual burutu ahal izateko duen berezko gaitasun egokia adierazten du.
B	Epe laburreko kreditu kalitate espekulatiboa. Kalifikazio hau jasotzen duten entitateek, epe laburrean finantza konpromisoak betetzeko gaitasun minimoa dutela esan nahi du, eta testuinguru ekonomikoan finantza edo ekonomia-aldaketaren batek eragina izateko aukera dago.
C	Epe laburreko ordainketa eza izateko arrisku handia. Finantza konpromisoak burutzeko gaitasunik ez izatea benetako aukera bat da.
RD	Ordainketa eza mugatua. Kalifikazio hau jasotzen duten entitateek, finantza konpromiso batzuei aurre egin ezin diela esan nahi du, baina beste batzuei erantzuten jarraitzen duela.
D	Ordainketa eza. Entitate baten ordainketa eza orokor bat edota epe laburreko obligazioen bat ez bete izana adierazten du.

Iturria: Norberak eginda

Fitch erakundeak, gainera, kalifikazio hauek, bai epe luzekoak eta bai epe laburrekoak, dituzten hainbat muga azaltzen ditu:

- Ordainketa eza jazotzeko probabilitatea zenbatekoa den ez du adierazten.
- Kalifikazioek ez dute baloratutako entitate edo baloreen merkatu balioa zein den adierazten, ezta hau aldatzeko dagoen probabilitatea ere.
- Ez dute jaulkitzailearen gordekinen likidezia neurtzen.
- Kalifikazioek ez dute transakzioaren perfilari buruzko iritzirik ematen, finantza konpromisoak ez gauzatzeko dagoen Fitch erakundearen iritzia baizik.

Aipatu behar da, entitateen epe laburreko eta epe luzeko balorazioak, elkarrekin lotuta doazela: alde batetik, epe laburrean ordainketak burutzeko gaitasunik ez badu, horrek epe luzeko gaitasuna ere baldintzatzen duelako; eta bestetik, nahiz eta epe laburrean ordainketei aurre egiteko gaitasuna izan, posible da beste faktore batzuen ondorioz, epe luzean duen gaitasuna txikiagoa izatea.

Hurrengo taulan, epe laburreko eta luzeko kalifikazioen baliokidetasuna azaltzen da. Esan beharra dago, taula hau orientagarria dela baina posible dela kasu guztietan ez egokitzea.

Taula 3: Epe labur eta luzearen arteko baliokidetasuna (Fitch Ratings, 2014/12c)

Rating Correspondence Table

Long-Term Rating	Short-Term Rating
AAA	F1+
AA+	F1+
AA	F1+
AA-	F1+
A+	F1 or F1+
A	F1
A-	F2 or F1
BBB+	F2
BBB	F3 or F2
BBB-	F3
BB+	B
BB	B
BB-	B
B+	B
B	B
B-	B
CCC	C
CC	C
C	C
RD/D	RD/D

Iturria: Fitch Ratings

Kreditu balorazio agentzien kalifikazioekin amaitzeko, aipatzekoak dira balorazio zaintza (Rating Watch) eta balorazio aurreikuspenak (Rating Outlook) ere.

Lehenengoak, balorazio aldaketa bat emateko probabilitatea dagoela adierazten du eta positiboa edo negatiboa izan daiteke (positiboa balorazioa igotzea posible bada, eta negatiboa balorazioa jaisteko probabilitatea badago).

Bigarrenak, berriz, balorazio horrek urtebete eta bi urte bitartean izan dezakeen joera aurreikusten du: egonkorra, positiboa edo negatiboa. Aurreikuspen positiboa edo negatiboa izateak ez du esan nahi ezinbestean hala aldatuko denik. Balorazio aurreikuspenak epe luzeko kalifikazioetan erabili ohi dira.

Banku eta finantza erakundeak

Gainera, aipatzekoa da azken urteotan egunkarietan isla handia izan duen finantza erakundeen “stress test” delakoa. Banku eta finantza erakunde espainiarrak baloratu zituzten Europako Banku Zentralak eta Autoridad Bancaria Europea-k eta hauekin zerrenda bat atera zuten. Espainiaren kasuan, banku guztiek gainditu zuten testa, batzuk, besteek baino rating hobearekin.

Hauek, Europar Batasuneko 123 banku hautatu eta aztertu zituzten, beraien arrisku eta kaudimena aztertuz eta balorazio bat ematez. Orrialde honetan (Autoridad Bancaria Europea, 2014/10/26) aurki daitezke bi erakunde hauen testaren erantzunak. Bere web orrian, gainera, balorazioa nola egin dutenari buruzko datu eta informazio asko eskuratu daiteke, baina bankuak baloratzeko garaian kontuan hartzen diren irizpideak, oso espezializatuak dira, eta ezingo ditugu gure azterketarako erabili.

Standard&Poor's enpresak ere banku eta finantza erakunde nagusien balorazioa egin zuen 2012.urtean, bankuen arriskura egokitutako kapitalari buruz, hau da, bankuen kaudimenari buruzko txostena igorri zuen (Romani, 2012/02/29).

Aseguru enpresen rankingak ere oso ohikoak izan ohi dira, adibide bezala, Aseguranza aseguru profesionalen atariak argitaratzen duena, aseguru onenen rankinga (Grupo Aseguranza, 2015).

Beste ranking batzuk

Amaitzeko, esan beharra dago, kaudimenaz gain beste hainbat irizpideren arabera ere egiten direla enpresen rankingak, esaterako, Merco erakundeak enpresen erreputazioaren arabera egiten duena (MercoEmpresas), El País egunkarian argitaratutako mundu mailako enpresarik indartsueneren rankinga burtsako balioaren arabera (Clemente, 2015/01/03), edota banaketa sektorearen barnean soilik egindako balorazioa, Deloitte eta Stores aldizkariak egina, Global Powers of Retailing izeneko txostenean azaldua (Deloitte, 2014).

Informazio gardentasuna ere, gaur egun, gero eta garrantzia gehiago lortzen ari den gaia da, eta hori dela eta, transparencia.org organismoa, irabazi asmorik gabeko erakunde internazionala, informazio gardentasunari eta ustelkeriaren aurkako hainbat ekintza burutzen ditu, esaterako, udalen gardentasun maila neurtu eta horren arabera zerrenda bat argitaratu (Transparency International España). Gai honi buruz aurrerago sakonduko da gehiago.

Gradu Bukaerako Lan hau, ordea, Gipuzkoako udaletxeen kaudimenean zentratuko da, bere arabera burutuko baitu rankinga. EAE mailan, orain arte, ez da rankingik argitaratu.

III. GIPUZKOAKO UDALETXEAK

Gipuzkoa, Euskal Autonomia Erkidegoko probintzietako bat da eta 88 herriz osatua dago (INE). Era berean, Gipuzkoa 7 eskualdeetan banatuta dago (Gipuzkoako Batzar Nagusiak), eta hauek azpi eskualdeetan banatuta era berean:

Taula 4: Gipuzkoako udalak eskualdeen arabera

Eskualdea	Azpi eskualdeak eta herriak
Bidasoa Behea	Hondarribia, Irun
Donostialdea	1. <u>Oiartzunaldea</u> : Errenteria, Lezo, Oiartzun, Pasaia 2. <u>Donostia</u> : Donostia, Astigarraga 3. <u>Hernanialdea</u> : Andoain, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil
Urola Kosta	1. <u>Zarautzaldea</u> : Aia, Getaria, Orio, Zarautz 2. <u>Zumaialdea</u> : Aizarnazabal, Zestoa, Zumaia 3. <u>Iraurgi</u> : Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Errezil
Deba Behea	1. <u>Debaldea</u> : Deba, Mutriku 2. <u>Elgoibar</u> : Elgoibar, Mendaro 3. <u>Eibar Ego</u> : Eibar, Soraluze
Deba Garaia	1. <u>Bergaraldea</u> : Antzuola, Bergara, Elgeta 2. <u>Leintz</u> : Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga, Arrasate 3. <u>Oñati</u> : Oñati
Goierri	1. <u>Urola Garaia</u> : Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu, Zumarraga 2. <u>Oria Garaia</u> : Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Zerain, Gaintza, Gabiria, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Zaldibia, Zegama
Tolosaldea	1. <u>Zumebatzarrea</u> : Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Gaztelu, Legorreta, Lizartza, Oresa, Orendain, Tolosa 2. <u>Herniobeia</u> : Aduna, Asteasu, Larraul, Billabona, Zizurkil

Iturria: Gipuzkoako Batzar Nagusiak

2014.urtean, biztanleria 715.148 pertsonen osatzen zuten eta 2013.urtean, berriz, 713.818 pertsonen.

Taula 5: Gipuzkoako biztanleriaren bilakaera

Urtea	Biztanle kopurua	Bilakaera
2014	715.148	%0,19
2013	713.818	%0,24
2012	712.097	%0,35
2011	709.607	%0,33
2010	707.263	%0,22
2009	705.698	%0,66
2008	701.056	%0,88
2007	694.944	%0,44

Herrien tamainak aztertuz, ohartzen gara herririk gehienak herri txikiak direla, biztanle gutxiko herriak, alegia. Biztanle kopuru handiko hiriak, ez dira oso ohikoak. Beraz., esan daiteke, Gipuzkoako udaletxeek, orokorrean, biztanle kopuru txikia dutela.

Taula 6: Gipuzkoako herrien sailkapena biztanle kopuruaren arabera

Biztanle kopurua	Herri kopurua 2014	Herri kopurua 2013	Herri kopurua 2012
< 101	0	0	0
101 - 500	23	23	23
501 – 1.000	9	9	9
1.001 – 2.000	13	13	13
2.001 – 3.000	5	5	5
3.001 – 5.000	4	4	5
5.001 – 10.000	16	15	13
10.001 – 20.000	12	13	14
20.001 – 30.000	3	3	3
30.001 – 50.000	1	1	1
50.001 – 100.000	1	1	1
>100.000	1	1	1
GUZTIRA	88	88	88


Iturria: INE, 2014ko datuak.

Norberak egina

Herririk gehienak, 88tik 23 bereziki, 101-500 biztanle kopurukoak dira, beraz, gehienak, oso txikiak direla ondorioztatu daiteke. Udal hauen dimentsioa, ez da oso handia izango. Ondoren, 5.001-20.000 biztanle tartean, beste 28 herri daude, (2012an 27) hots, tamaina ertaineko herri hauek ere garrantzia handia izango dute Gipuzkoaren kasuan.

Ez dago 100 biztanle baino gutxiagoko herririk eta 30.000 biztanletik gora, berriz, 3 herri bakarrik daude, beraz, ez dira ohikoenak.

Grafiko 4: Gipuzkoako udalen biztanle kopurua



Aurreko grafikoan, berriz, biztanle kopurua aztertuko da, hau da, non bizi den pertsona gehien. Izan ere, herri kopuruak ez digu bertako biztanleriaren tamainaren berri ematen.


Aurrez esan dugun bezala, Gipuzkoan 2013.urtean, guztira 713.818 biztanle bizi ziren, eta horietatik %26a 100.000 biztanle baino gehiagoko hirian bizi dira, hots, Donostian, konkretuki 186.500 pertsona. Hau da, nahiz eta biztanle kopuru horretako hiri bakarra egon, Gipuzkoako %26a bertan bizi da eta berebiziko eragina izango du.

Ondoren, 10.000 eta 20.000 biztanle bitarteko herriek ere garrantzia handia dute. Gipuzkoako biztanleen %27a beraietan bizi zen. 20.000 eta 50.000 biztanle arteko herrietan, berriz, Gipuzkoako biztanleri totalaren %16a bizi da, eta %14 5.000 eta 10.000 biztanleetako herrietan.

Sexu banaketari dagokionez, nahiko parekatua dagoela esan daiteke, nahiz eta emakume gehiago izan, 2013.urtean Gipuzkoan 349.551 gizonezko baitzeuden eta 364.267 emakumezko.

Bataz besteko adinari dagokionez, Gipuzkoaren kasuan, 2014.urtean 43,4 urtekoa da, eta honen bilakaera azken urteetan gorakorra izan da, 2011.urtean 42,8 urtekoa baitzen. Gipuzkoako bataz besteko adina, gainera, Euskal Herrikoaren gaintik dago (Atlasa), ondorengo grafikoan ikus daiteken bezala:

Grafiko 5: Gipuzkoa eta Euskal Herriko batz besteko adina



Iturria: *Atlasa.net*

IV. LURRALDE ANTOLAKETA ETA ARAUDIA

Gipuzkoako udalen finantza kaudimenaren rankinga egiten hasi aurretik, Gipuzkoako aurrekontuen araudia, berauen egitura ekonomikoa eta kokapena aztertzea komeni da. Gipuzkoaren kasua, berezia da, eta beraz, bere finantzaketa sistemari buruz oinarritzko informazioa izatea ezinbestekoa da lan hau garatu aurretik.

Esan beharra dago, Espainia Europar Batasunean egoteak eragin egiten diola Gipuzkoari, batez ere, Europar Batasunak ezarri ohi dituen erregulazio eta arauen bidez. Hauek, Europar Batasuneko kide guztiei aplikatzen zaizkienez, Gipuzkoari ere, noski, eragiten diete.

Gainera, Egonkortasun eta Hazkunderako Hitzarmenaren bidez (erdaraz PEC, Pacto de Estabilidad y Crecimiento) (Consejo Europeo, 2005/11/14). Europar Batasuneko estatuek egindako hitzarmen bat da, eta bere helburuak, bi puntu nagusitan laburbildu daitezke:

1. *Gainbegiraketa aldeaniztuna*: Europar Batasuneko estatu-kideek egonkortasun programa bat aurkeztu beharko dute, zor publikoari buruzko helburuak definituz, superabita edo oreka lortzeko helburuak edota helburu horiek lortzeko hartutako erabakiak, esaterako.
2. *Gehiegizko defizitaren kontrola*: estatu kideren batek, bere Barne Produktu Gordinaren %3 a gainditzen duen zor publikoa badu, hau gutxiagotzera behartuko dute eta baita santzioak jarri ere.

1978ko Espainiar Konstituzioak dio, autonomia erkidegoek, estatuko Ogasun sailak emandako kompetentziak garatu eta egiteko autonomia finantzarioa dutela (Konstituzio Espainiarra, 1978c). Hau da, Estatua Autonomia Erkidego ezberdinetan banatzea ahalbidetzen du eta autonomia erkidego bakoitzak dituen kompetentziak modu independentean garatu ditzake. Hori dela eta, Euskal Autonomia Erkidegoan, Eusko Jaurlaritza sortu zen.

Konstituzioan bertan, daude adierazita zein izango diren autonomia erkidegoen kompetentziak (Konstituzio Espainiarra, 1978a) eta zeintzuk estatuarenak eskusiboki (Konstituzio Espainiarra, 1978b). Hurrengo taulan, ikus daiteke, laburbildurik, zein kompetentzia transferitzen dizkion Estatuak Euskal Autonomi Erkidegoari:

Taula 7: Autonomia erkidegoen eta Estatuaren kompetentziak (konstituzioko 148-149. art.)

AUTONOMIA ERKIDEGOAK (Eusko Jaurlaritza)	ESTATUAK
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Autogobernurako erakundeen antolakuntza ▪ Lurralde barneko Udalen barrutia aldaketak ▪ Lurralde antolaketa, hirigintza, etxebizitza arloa ▪ Autonomia Erkidegoaren intereseko obra publikoak ▪ Autonomia Erkidego barruko errepideak eta trenbideak ▪ Portuak, babes portuak ... ▪ Nekazaritza eta abeltzaintza ▪ Mendiak eta basozaintza ▪ Ingurumenaren zainketa ▪ Erabilera hidraulikoko proiektuen eraikuntza eta ustiakuntza eta ur termalen ustiakuntza ▪ Barneko uretako arrantza ▪ Barneko azokak ▪ Autonomia Erkidegoko ekonomia bultzatzea ▪ Eskulangintza ▪ Museo, liburutegi, musika kontserbategiak... ▪ Ondare monumentala ▪ Kultura eta ikerketaren sustapena, eta euskararen sustapena ▪ Turismoaren antolakuntza ▪ Kirolak ▪ Laguntza sozialak ▪ Osasuna ▪ Eraikuntzen zainketa 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Espainiar guztien berdintasuna bermatuko duten arauak. ▪ Nazionalitatea, immigrazioa, emigrazioa, asilo eskubidea ... ▪ Harreman internazionalak ▪ Defentsa eta Armada ▪ Justizia Administrazioa ▪ Merkataritza zuzenbidea, zuzenbide penala eta espetxeetakoak. ▪ Lan zuzenbidea ▪ Zuzenbide zibila ▪ Jabetza industrialaren eta industrialaren arloko zuzenbidea. ▪ Aduanak, arantzelak. ▪ Moneta sistema ▪ Ordu ofiziala, neurriak ... ▪ Jarduera ekonomikoaren koordinazioa ▪ Ogasun Orokorra eta Estatuaren zorra. ▪ Ikerketa zientifiko eta teknikoaren sustapena ▪ Osasungintza (produktu farmazeutikoei buruzko legedia). ▪ Gizarte Segurantzak ▪ Herri-administrazioen araubide juridikoaren oinarria ▪ Arrantza, itsas merkataritza, kosten argitzea, aireportuak ... ▪ Trenbideak ▪ Ingurumenaren arloko oinarrizko legedia. ▪ Komunitate Erkidego bat baino gehiagotako obra publikoak ▪ Sektore energetiko eta minak. ▪ Armagintza ▪ Komunikabideei buruzko arauak ▪ Ondare kulturalaren defentsa ▪ Segurtasun publikoa ▪ Titulu akademiko eta profesionalen lorpenerako araudia. ▪ Estatuko estatistikak ▪ Erreferendumetarako baimenak

Iturria: Norberak eginda

Euskal Herriko Autonomia Estatutua (Eusko Legebitzarra), Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren eta Estatuaren arteko harremana kontzertu ekonomikoaren (Eusko Jaurlaritza, 2008) eta kupoaren bidez izango dela adierazten du. Sistema mota honen erregulazioaren (BOE, 2002) ondorioz, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak, jasotako sarreren zati bat Estatuari eman behar izaten dio, kupo deitzen zaiona, Estatuaren kompetentzia diren ekintzak finantzatu ahal ditzan.

Konstituzioak, gainera, lurralde foralek dituzten eskubide historikoak errespetatu eta mantentzen dituela dio, esaterako, lurralde foral euskaldunen kasuan (Konstituzio Espainiarra) (beti bere konstituzioak eta Autonomiako Estatutuek diotena betez). Hori dela eta, Euskal Autonomi Erkidegoak eta Nafarroak, Foru aldundiak izango dituzte, Gipuzkoaren kasuan, Gipuzkoako Foru Aldundia (GFA).

Beraien fiskalitate sistema mantendu, arautu eta kontrolatzen dute Euskal Autonomi Erkidegoak eta Nafarroako Foru Erkidegoak eta gainera zerga ia guztiak beraiek bildu, gestionatu eta gainbegiratzeko dituzte. Baina badira zerga batzuk beraiek kudeatu ezin dituztenak: BEZa eta inportazio eskubideak eta inportazioen arloko zerga bereziak.

Aurrez esan dugun bezala, autonomia erkidego hauek, zerga ia guztiak kudeatu eta jasotzeko eskubidea dute, baina Estatuari ordainketa bat egin behar izaten die, kupo deritzona. Kupoaren zenbatekoa 5 urtero finkatzen da eta indize baten arabera egokitzen joaten da. Indize hori Estatuaren bilketa likidoaren hazkundera da.

Nahiz eta zerga arloan askatasuna izan, zenbait baldintza betetzera behartuta daude:

1. Kontzertu ekonomikoak zehaztutako baldintzak bete behar dituzte.
2. Estatuaren eskumeneko erabakiak bete behar dituzte.
3. Estatuaren akordio fiskal internazionalak kontuan hartu behar dituzte.
4. Solidaritate printzipioa (BON) bete behar dute.
5. Estatuaren presio fiskalaren berdina ezarri behar dute.
6. Ley General Tributaria bete behar dute.
7. Ondasun eta zerbitzuen zirkulazio askea ahalbidetu behar dute.
8. Jarduerak sailkatzerakoan, sailkapen berdina erabili beharko du (Estatukoa).
9. Zerga informazioa elkartrukatu beharko dute.
10. Inspektzioak jasango dituzte.


Espainian, beraz, autonomia erkidegoen bi finantzaketa mota sortzen dira (BOE, 1980) (Ministerio de Hacienda y Administración Pública): erregimen orokorra eta erregimen forala. Kanariar Irlak, Ceuta eta Melilla, erregimen orokorraren barne daude, baina forma berezia hartzen dute. Euskal Autonomi Erkidegoa eta Nafarroako Foru Erkidegoa, berriz, erregimen foralean.

Ondorio gisa, esan daiteke, Gipuzkoaren antolakuntzan hainbat erakunde dutela eragina: Europar Batasuna, Espainiako Gobernua, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta, azkenik, udaletxeak egongo lirateke.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, gainera, Foru Finantzaketa Fondoa dauka eskuragarri, eta horri esker, udaletxeei zenbait diru kopuru transferitzen dizkie, hiruhilero (Gipuzkoako Foru Aldundia).

Udaletxeak, herritarren eguneroko bizitzako beharretan zentratzen dira: ura, zaborra, laguntza sozialak, festak Bere kompetentziak zein diren 71/185 Legean, apirilaren 2koa, entitate lokalen oinarriak finkatzen dituena (BOE), adierazten dira. Kontuen Tribunalaren Lege Organikoaren 4.artikuluaren arabera, sektore publikoa 3 ataletan banatzen da, eta udalak hirugarren mailan kokaturik leudeke, konkretuki, tokiko entitateen atalean. Sektore publikoko hiru nibel hauen artean, ez dago mendekotasun harremanik teorikoki, Konstituzioak, gestio publikoa egiteko autonomia onartzen baitie. Hala ere, errealitatean, egungo legeekin, badira hainbat menpekotasun: finantzarioa, legegintzakoa eta administratiboa (Dodero Jordán, 2001a).

Grafiko 6: Sektore publikoaren sailkapena



Norberak egina. Iturria: Ministerio de Economía y Hacienda

Udaletxeen fusioa Foru Aldundien konpetentzia da (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2003j). Udaletxe ezberdinak fusionatu edo bategiteko, ordea, hainbat baldintza bete behar dituzte: biak modu aparte, legeak aurreikusitako beharrei aurre egiteko gai ez izatea; hirigintza garapena dela eta hiri nukleoak ezin direnean ezberdindu; hobekuntza ekonomiko edota administratiboa baldin badakar. Udalen azpitik ere beste entitate lokal txikiagoak sortzeko aukera bada (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2003k), Itziarko kasua adibide izanik (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2015a).

V. AURREKONTUEN OSAKETA

Kontzeptua eta sailkapena

Aurrekontua, gastu publikoa finantzatzeko aurreikusitako sarrerak eta gastuen aurreikuspenak barneratzen dituen laburpen sistematikoa da, Fritz Neumark ekonomista alemaniarraren arabera (Neumark, 1961). Urtebeterako aurreikuspenak egiten dira aurrekontuan, bai gastuen aldetik baita sarreraren ikuspuntutik ere eta bertan jasotzen dira Administrazioaren helburuak.

Aurrekontuen Lege Orokorraren Testu Bateratuaren arabera (Texto Refundido de la Ley General Presupuestaria) , berriz, aurrekontua, bera egiten ari den erakundeak onartzen dituen obligazioek zenbakizko azalpen bateratu eta sistematikoa da, baita ekitaldian likidatzea espero den eskubideena ere.

Aurrekontuak, gainera, Administrazio Publikoa erabat baldintzatzen du (EHU/UPV, 2010/06/18) eta kudeaketa tresna bezala definitu daiteke, izan ere, erabakiak hartzeko informazio asko barneratzen du. Horretaz gain, aurrekontuek garrantzia handia dute kontabilitate publikoaren arloan, bertako informazioa ez delako beste inon ikusten.

Lotura ezaren printzipioa aplikatuz, sektore publikoko entitateek, beraien aurrekontuetan jasotako sarrerak libreki erabili ditzakete, hau da, edozein gastu kontzeptuetan, helburu jakinetarako xedatuta daudenak izan ezik (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2003i).

Aurrekontu bat, irizpide ezberdinen arabera sailkatu daiteke: irizpide ekonomikoa, funtzionala, organikoa eta programen arabera, lehenengo biak soilik direlarik obligaziozkoak.

Irizpide ekonomikoaren arabera, Udalaren aurrekontuko gastu zein sarrerak sailkatu beharko dira, duten izaera ekonomikoaren arabera.

Taula 8: Sarrera eta gastuen sailkapen ekonomikoa

SARRERAK		GASTUAK	
SARRERA ARRUNTAK		GASTU ARRUNTAK	
1. Zuzeneko zergak		1. Pertsonal gastuak	
2. Zeharkako zergak		2. Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	
3. Tasak eta bestelako sarrerak		3. Finantza gastuak	
4. Transferentzia arruntak		4. Transferentzia arruntak	
5. Ondare sarrerak			
KAPITAL SARRERAK		KAPITAL GASTUAK	
6. Inbertsio errealen besterenganatzea		6. Inbertsio errealak	
7. Kapital transferentziak		7. Kapital transferentziak	
8. Finantza aktiboak		8. Finantza aktiboak	
9. Finantza pasiboak		9. Finantza pasiboak	

Iturria: 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa. Norberak eginda.

SARRERAK

Sarrera arruntak

- I. Zuzeneko zergak:** Udal baten zuzeneko zergetan sartuko dira udalerrri horretako pertsona fisiko zein juridikoek udalerrri horretan dituzten ondasunen gaineko zergak. Adb: ondasun higiezinaren gaineko zerga edota trakzio mekanikoko Ibilgailuen gaineko zerga.
- II. Zeharkako zergak :** Nahiz eta orokorrean zeharkako zergarik ezagunena BEZa izan, zerga hau Foru Aldundiak kudeatuko du. Udal mailan kontsumoa oinarritzat hartuz kobratzen den zeharkako zergarik nagusia "eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga" da.
- III. Tasak eta bestelako sarrerak :** Kapitulu honetan barneratuko dira udalak herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzuen truke kobratutako zenbatekoak, hala nola, zaborrak, kirol instalazioak, hartzaindegiak, etab.
- IV. Transferentzia arruntak:** Multzo honetan sartuko dira, udalaren funtzionamendu orokorrera bideratutako diru-laguntza guztiak. Hau da, udalaren ohiko funtzionamenduak sorrarazten dituen gastu arruntak finantzatzera bideratutako diru-laguntza edo subentzioak. Kapitulu honetan, aparteko garrantzia du foru aldundiak udalen artean banatzen duen udal finantzaketarako foru fluxu edo fondoak (UFFF). Diru-laguntza honen jatorria funtsean Foru Aldundiak kudeatzen dituen 3 zerga nagusietan dago:
 - ⇒ Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ)
 - ⇒ PFEZ
 - ⇒ Elkarleen gaineko zerga edo mozkinen gaineko zerga
- V. Ondare - tresnak :** Kapitulu honetan barneratuko dira udalaren jabetzakoak diren ondasun eta finantza inbertsioek sorrarazten dituzten sarrerak.

Kapital sarrerak

VI. Inbertsio errealen besterenganatze: Finantza izaera ez duten inbertsioak besterenganatzeagatik sortutako sarrera guztiak kapitulu honetan kokatuko dira.

VII. Kapital - transferentziak: Udalak zuzenean edota zeharka burutzen dituen inbertsioak finantzatzeko jasotzen diren diru laguntza guztiak, kapitulu honetan kokatuko dira.

VIII. Finantza-aktiboak: Udalaren jabetzakoak diren finantza inbertsioak besterenganatzeagatik sortutako diru-sarrera guztiak kapitulu honetan barneratuko dira.

Kapitulu honen barruan, garrantzia handia duen kontzeptu bat barneratzen da: diruzaintza gerakina. Kontzeptu hau, geroago landuko da sakontasunean.

IX. Finantza - pasiboak: Udalak sinatu eta erabili dituen epe luzerako mailegua jasoko ditu.

GASTUAK

Gastu arruntak

I. Pertsonal gastua: Udalak kontratatutako pertsonak funtzionario, zein laboralak sortutako gastuak kapitulu honetan barneratuko dira. Orokorrean gastu hauek soldata gordin eta udalaren kargurako gizarte segurantzia izango dira.

II. Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan: Udalak eskaintzen dituen zerbitzuak gauzatu ahal izateko beharrezkoak diren ekimen ezberdinek sortutako gastuak, kapitulu honetan barneratuko dira. Adibidez: bulego materiala, argi indarra, ibilgailuen erregaiak, aseguruak, azpikontratak ...

III. Finantza gastuak: Udalak bere ihardura finantzatzeko erabiltzen dituen epe luze zein laburrerako zorrek sorrarazitako interesak, kapitulu honetan kokatuko dira.

IV. Transferentzia arruntak: Kanpoko eraikuntza batek bere ohiko jarduera finantzatzeko, udalak emandako dirua (bere udalarengandik ematen den diru-laguntza) kapitulu honetan kokatuko dugu.

Kapital gastuak

VI. Inbertsio errealak: Finantza izaera ez duten eta udalaren jabetzakoak diren ondare elementuetan burututako inbertsioek sorrarazitako despoltsapena kapitulu honetan kokatuko dugu.

VII. Kapital- transferentziak: Kanpoko erakundeak inbertsioak finantzatzeko erabiltzen dituen udalak emandako diru-laguntzak, izaera hau, alegia, kapital transferentzien izaera dute.

VIII. Finantza aktiboak: Finantza izaera duten inbertsioek sorrarazitako despoltsapen guztiak hemen kokatuko dira.

IX. Finantza-pasiboak: Epe luze zein, laburrerako zorren amortizazioak sorrarazitako despoltsapen guztiak kapitulu honetan kokatuko dira.

Irizpide funtzionalarekin, berriz, aurrekontuko gastuak soilik sailkatuko dira, hauek, burutzen duten funtzioaren arabera. Sailkapen hau gastuen korrantearekin bakarrik egingo da:

Taula 9: Gastuen sailkapen funtzionala

GASTUAK
1. Zerbitzu orokorrak
2. Babes zibila eta herritarren segurtasuna
3. Gizarte segurtasuna, babesa eta sustapena
4. Gizarte izaerako herri ondasunak sortzea
5. Izaera ekonomikoko ondasunak sortzea
6. Erregulazio ekonomiko orokorra
7. Ekoizpen sektoreen erregulazio ekonomikoa
9. Administrazio Publikoei egindako transferentziak
0. Zor publikoa

Iturria: 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa. Norberak eginda.

- 1. Zerbitzu orokorrak:** adibidez, alkatetza gastuak
- 2. Babes zibila eta herritarren segurtasuna:** adibidez munizipalak
- 3. Gizarte segurtasuna, babesa eta sustapena:**
 - 3.1. Gizarte ekintza eta Pentsioak eta bestelako prestazio ekonomikoak.
 - 3.2. Hezkuntza sustapena, Enplegu sustapena eta Sustapena eta gizarteratzea
- 4. Gizarte izaerako herri ondasunak sortzea:** Diru laguntza asko datoz hemendik.
- 5. Izaera ekonomikoko ondasunak sortzea:** Inbertsioekin lotutakoak (adibidez nekazaritza arloan)
- 6. Erregulazio ekonomiko orokorra:** Araugintzarekin lotuta.
- 7. Ekoizpen sektoreen erregulazio ekonomikoa:** Udalak berak inbertsioak burutuko baditu sektore hauetako batean.
- 9 Administrazio publikoei egindako transferentziak:** Administrazio batek beste bati egiten dion transferentzia bat, adibidez, balantzeen eguneraketatik %70ekoa.
- 0. Zor publikoa:** sinatutako dauzkagun maileguren suposatzen duten despoltsapen guztia, udal batek dituzten maileguren despoltsapenak (interesak eta amortizazioak izan daitezke).

Irizpide organikoaren arabera sailkapena eta programen arabera, hautazkoak dira, hots, ez dira obligaziozkoak udalentsat (ekonomikoa eta funtzionala, ordea, bai).

Irizpide organikoaren arabera, udalak aurrekontua sail ezberdinen artean banatzen du, eta programen arabera irizpidearekin, berriz, udalaren gastu aurrekontua burutu nahi diren zenbait ekintza konkretu lortzeko sailkatua izan daiteke

Aurrekontu kredituen erregimen orokorra

Printzipioz, gastuen aurrekontuko partida bakoitzean aurreikusitakoa mugatzailea da, hau da, aurreikusitako zenbatekoa baino gehiago ezin daiteke gastatu. Nolanahi ere, badira zenbait salbuespen, horien artean aipagarriena aurrekontu kredituen lotura maila (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2003a) delarik. Horri esker, lotuta dauden partida ezberdinen artean, barne finantzaketa sistema bat ezarri daitekeela. Honi esker, aurrekontuaren kudeaketa malguagoa da. Ondorengo taulan laburbiltzen dira kredituen lotura mailari buruzko informazioa:

Taula 10: Aurrekontuen kredituen lotura maila

KAPITULUA	SAILKAPENA	
	EKONOMIKOA	FUNTZIONALA
I	1	-
II	1	3
III	1	3
IV	3	3
VI	3	3
VII	3	3
VIII	3	3
IX	1	3

Iturria: Erkizia, A.

Aurreko taulan ikus daitezkeen bezala, hiru maila bereizten dira. 1.mailako kapituluak, elkarren artean lotu daitezke, 2.mailakoak beraien artean eta 3.mailakoak bere artean. Hau da, lotu nahi diren gastuek antzeko izaera izan behar dute.

Udal aurrekontuetan garrantzia handia duen beste kontzeptuetako bat kreditu globalarena (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2003b) da. Kreditu globala, aurreikusi gabeko gastuei aurre egiteko edota aurreikusi arren ordainketa kreditua osatzeko, izaera orokorra duen gastuetako partida berezi bat da. Kreditu globala gehienez ere, ordainketa kredituaren (guztira) %5a izango da.

Gastuen partidak, kreditu zabalgarrien (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2003c) bidez ere handitu daitezke. Gastuen partiden zenbatekoa hasiera batean mugatua bada ere, aurreikusitako finantzaketa baino gehiago jasotzen bada, posible da gastuen zenbatekoa ere igotzea.

Amaitzeko, aurrekontuetan aldaketak eman daitezkeela argitu behar da. Kreditu transferentzien erregimena (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2003d), esaterako, aurrekontu aldaketa kualitatiboa da, eta horri esker, partida baten zenbatekoa handitu daiteke, beste baten gutxikuntzarekin.

Sarrera eta gastuen aldaketa kuantitatiboek dagokionez, berriz, kredituen gaikuntza (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2003e), kredituen txertaketa (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2003f), ezabaketagatiko bajak (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2003g), kreditu gehigarriak (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2003h) eta hitzarmenen erregimena erabili daitezke.

Aurreikusi gabeko sarrerak edo aurreikusitakoa baino gehiago jasoz gero, kreditu gaikuntzaren bidez, gastuak aldatu daitezke. Bestalde, ekitaldi amaierara iristean, partida batean kreditu gerakina sortu bada, hau hurrengo ekitaldiko aurrekontuan txertatu daiteke, gehienez diruzaintza gerakinaren zenbatekoan. Aurreikusi gabeko gastu bat sortzen bada, berriz, kreditu gehigarriaren bidez, aurrekontua aldatzea posible da.

VI. GIPUZKOAKO UDALETXEEN KAUDIMENA

Zer da kaudimena?

Lehenik eta behin, kaudimena zer den ongi definitzea komeni da, izan ere, askok, likidezia edota errentagarritasun kontzeptuekin nahastu ohi dute.

Kaudimena, orokorrean, erakunde batek, hirugarrenekin egindako konpromisoak hitzartutako baldintzetan bete ahal izateko, beharrezko fondoak eskuratzeko duen gaitasuna da. Kaudimena, aurrez esan dugun bezala, ez da likideziarekin nahastu behar: likidezia, erakundeak bere jarduerarekin baliabide likidoak eskuratzeko duen gaitasuna da, eta kaudimena, aldiz, baliabide ez likidoak ere barneratzen ditu, beti ere ordaintzeko dituen partida edo zorrei aurre egiteko balio badute. Baliteke enpresa batek, beraz, kaudimena izatea, hau da, hirugarrenekin egindako konpromisoak betetzeko gai izatea, baina likideziarik ez izatea (Boal Velasco).

Enpresa pribatuen kaudimena neurtzeko hainbat ratio proposatu izan ohi dira, adibidez, aktibo totala zati pasibo totala egitea. Baina administrazio publikoen kasuan, kaudimena aztertzeko, beste kalkulu batzuk egin ohi dira.

Herritarren informazio beharra

Udal bakoitzaren egoera ekonomiko - finantzarioa ezagutzeko, adierazle eta ratio batzuk proposatuko dira jarraian. Gaur egun, oinarrizko zutabea da baliabideen esleipen eta kudeaketa efizientea ematea herri administrazioen kasuan, adierazle eta ratioak laguntzen dutelarik horretan. Hala ere, azken urteetako joerak aztertuz, argi ikus daiteke, herritarrek ere jarduera publikoaren martxari buruzko informazioa desio dutela, bai jasotzen dituzten ondasun eta zerbitzuen kantitatea eta kalitatea ebaluatu ahal izateko baita herrialde ezberdinek daramaten fondo publikoen gestioak konparatu ahal izateko ere (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2003I).

Aurrez esan dugun bezala, tradizionalki, kontabilitate publikoaren eginbeharra kontuak egin eta erakustea zen, soilik legea betetzeko helburuarekin. Informazio hau eskuratu eta erabiltzen zutenak aholkulariak eta kontroleko organoak soilik izan ohi ziren. Baina orain, kontuak buruzko informazioa ematea, entitate lokalen efikazia eta efizientzia neurtzea, helburuen betetze-maila neurtzea, aurrekontu exekuzio mailak ezagutzea ... (Asociación Española de Contabilidad y Administración de Empresas, 2001).

Hori dela eta, gizarteari entitate publikoen kontuei eta egoerari buruzko informazioa helarazteko joera nabarmena suma daiteke azken urteotan. Informazio gardentasunari buruz lana egiten ari dira bai Estatua zein beste hainbat entitate

publiko. Lan honen aurreko ataletako batean¹ aipatu dudak bezala, irabazi asmorik gabeko erakunde internazionalak, Transparency international-ek, arlo honetan egiten du lan eta beraien burua gobernu, sozietate eta jendearen eguneroko bizitza ustelkeriatik at egon dadin saiatzen den mugimendu gisa definitzen dute (Transparency International). Gaur egun, erakunde hau munduko 100 herrialde baino gehiagotan dago, tartean Espainia.

Informazio gardentasunaren harira, Espainiako gobernuak, berari sustatzeko hainbat ekintza burutu ditu, esaterako, gardentasunaren ataria izeneko webgunea sortu du (Gobierno de España), bertan administrazio publikoei buruzko informazioa barneratzen duelarik, tartean, informazio ekonomikoa ere, likidazio edota aurrekontuei buruzkoa esaterako. Aurtengoan, apirilko datuen argitalpenean atzerapen nabarmena nabari ahal izan da, eta Ines Calderón kazetariaren ustez, hauteskunde garaian datu horiek ez kaleratzea hobe izan daitekeelako izan daiteke (Calderón, 2015/05/08). Kristobal Montorok esan duenaren arabera, datuak Maiatzaren 29an argitaratuko dira (Ministerio de Hacienda y Administraciones Públicas).

Euskadi mailan ere, gardentasuna lortzeko asmoz, Open Data Euskadi plataforma (Eusko Jaurlaritza) jarri zuen martxan Eusko Jaurlaritzak. Eusko Jaurlaritzak eskaintzen dituen datu publiko multzoa aurkezten du webguneak. Open Data Euskadi, Gobernu Irekia (Eusko Jaurlaritza) delako proiektutik abiatutako ekimena izan zen.

Gipuzkoa barnean ere, hainbat udaletzek hartu dute datu publikoen argitalpenerako joera. Ermuko udalak esaterako, "*transparencia municipal*" delako atala sortu du bere webgunean (Ermuko Udala), bertako informazioa Transparency International erakundearentzat egokitua delarik. Azpeitiko udalaren kasuan ere, Open Data gunea dauka (Azpeitiko Udala), Azpeitiko udaleko datu publikoak barneratzen dituena. Horretaz gain, Kontuak Garbi (Azpeitiko Udala) proiektua jarri du martxan, non Azpeitiko urtez urteko aurrekontuak barneratzean gain, sailkapen funtzionalean, 1.500€tik gora jasotako faktura guztiak ere argitaratzen dituen.

Herritarrei sektore publikoaren egoera ekonomiko - finantzarioari buruzko informazioa emateko oso baliagarriak izan daitezke ratio eta adierazleak, ulerterrazak izan ohi baitira. Adierazleak, lortutako emaitzak, helburuen betetze-maila eta baliabideen gestio efizientea erakusteaz gain, herritarrei informazioa emateko balio behar dute.

Emaitza horiek erakusteko garaian, joera ezberdinak nabarmentzen dira munduko herrialde ezberdinetan zehar: herrialde anglosaxoietan emaitzenganako joera nabarmentzen den bitartean, gure inguruan kalitatearen eta etengabeko hobekuntzaren aldeko ereduak dira nagusi (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2003I).

Udal administrazioei dagokionez, ez Europan, Estatuan, EAE-n ezta Gipuzkoan ere, entitate publikoen autonomia maila dela eta, ez dago adierazleak erabiltzeko derrigortasunik ezartzen duen legedirik. Hala ere, udal asko, beraien kudeaketa eta gestioa ahalik eta efizienteena izan dadin adierazleak erabilpena bultzatuz lanean ari dira, adierazle multzoak definituz (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2003I).

¹ Konkretuki, egin izan diren rankingak atalaren beste ranking batzuk azpiatalean.

Erresuma Batua da, udal entitateetarako derrigorrezko adierazleen multzoa definitu duen herrialde bakarra. 1992ko Tokiko Gobernuen Legeak, administrazio publikoek eskaintako zerbitzuei buruzko adierazleak garatzeko derrigortasuna ezarri zuen. Geroago, adierazle gehigarri batzuk ezarri ziren, *Best Value Performance* delakoa, aurrekoaren osagarri direnak. Hori dela eta, udal bakoitzak urtero hainbat adierazle aurkeztu behar izaten ditu nahitaez (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2003l) (UK Ministry of Justice, 1999).

Estatu Batuen kasuan, erakunde federalentzat derrigortasunak badira, baina entitate lokalen kasuan libre geratzen dira derrigortasun horietatik (US Congress, 1993). Erakunde federalek, hainbat dokumentu aurkeztu behar izaten dituzte (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2003l):

- 5 urtetarako Plan estrategikoa, 3 urtetik behin errebisatuko dena
- Emaitzen urteko plana, jarduera bakoitzeko helburuak eta hauek neurtzeko adierazleak definiturik (*Annual Performance Plan*).
- Programen emaitzen urteko txostena (*Annual Program Performance Report*)

Kanadan ez dago entitate publikoentzako derrigorrezko adierazleen sistemarik, baina, hala ere, bertako probintzia bat edo bestek, zentzu horretan hainbat ekimen sustatu dituzte (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2003l). Esaterako, Ontario, 2000.urtean ezarritako programa baten ondorioz, udaletxe guztiek urtero beraien 9 oinarrizko zerbitzuen emaitzak neurtu eta hauei buruzko informazioa eman behar diete herritarrei ezinbestean (Ministry of Municipal Affairs and Housing of Ontario, 2015).

Australiaren kasuan, Nueva Gales del Sur izeneko probintziak, derrigorrezko adierazle multzoa definitu du (NSW Government, Office of Local Government). Adierazle horiek, zabor-bilketa, ura, ingurugiroa, liburutegiak ... bezalako zerbitzuak jasotzen dituzte (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2003l) .

Nabarmentzekoa da, gertutasunagatik, **Bartzelonako** diputazioaren kasua ere. 1993an Udalen Informazio Ekonomiko Zerbitzua jarri zuen martxan, udaletxe guztiei eskainia. Erabakiak hartzen laguntzen duen sistema bat da, eta borondatezko izaera dauka. Udalek egin beharreko gauza bakarra datuak sartzea da, polizia, argiteria, zaborra, hezkuntza, kirolak ... bezalako gaiei buruz (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2003l). HERMES programa izena du gaur egun (Gerència de Serveis de Promoció Econòmica i Ocupació, Diputació de Barcelona) .

Bizkaiko Foru Aldundiaren kasuan, ezin EUDEL (Euskadiko Udalen Elkartea) eta Europako Kontseiluarekin sinatu duen hitzarmena aipatu gabe gelditu. 2015.urtean, BFA-k udaletako informazio ekonomiko eta aurrekontuetakoa aztertzeko adierazle sistema garatzeko hitzarmena sinatu du aurrez aipatutako bi erakunde horiekin. Hau guztia Europako Kontseiluak eskaintzen duen LFB (Local Finance Benchmarking) tresnak ahalbidetuko du, izan ere, udalen egoera ekonomikoari buruzko informazioa ematen duten adierazleak baititu. Horretaz gain, informazioa herritarrei helaraztea eta udalen arteko konparaketak egin ahal izatea lortzea espero dute, baita finantzen eraginkortasuna handitzea ere. Momentuz, proba 5 udalerrietan hasiko dute. (Bizkaiko Foru Aldundia, 2015)

Gipuzkoaren kasuan, udalen adierazle ekonomiko – finantzarioak garrantzia handia dute, Interneten edozeinentzat eskuragarri daudelarik, Udalgida-ren web orrian (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2015c). Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Departamentuak eskaintzen duen zerbitzua da, eta bertan, aurrekontu eta likidazioez gain, hainbat adierazle eta estatistikak aurki daitezke.

Kontabilitate eta Enpresen Administrazioiko asoziazio espainiarraren arabera, (AECA siglak erdaraz, Asociación Española de Contabilidad y Administración de Empresas), entitate publikoen informazio finantzarioen erabiltzaileak hainbat izan daitezke: (Asociación Española de Contabilidad y Administración de Empresas, 2001)

- Zerbitzuen erabiltzaileak, erakunde publikoak, jasotzen dituzten zerbitzuak kalitate horretan ematen jarraitzeko gai al diren jakiteko.
- Politikariak, gobernuak egindako fondoek erabilera baloratzeko.
- Kanpo kontroleko organoak. Hauek, entitate publikoen kontuei buruzko txostena helarazten die politikariei.
- Hartzekodunak, beraien kreditu eskubidea kobratzeko aukerak ezagutzeko.
- Finantza bitartekariak edo inbertitzaileak, inbertitu dutenaren egoera finantzarioa ezagutzeko.
- Rating enpresak, balorazioak egin ahal izateko.
- Langileak
- Herritarrak, botoa ematen dutenak, alegia, hauek baitira gobernuan nor egongo den erabakitzen dutenak, eta administrazio publikoen egoera ekonomikoak horretan eragina izan dezake.

Informazioaren erabiltzaileek dituzten beharren harira, aipatzekoa da Drebin, Chan eta Ferguson-en txostena (Benito Lopez, 1995). Bertan, 10 erabiltzaile identifikatu zituzten eta berauen informazio beharrak zeintzuk diren.

Informazio kontable publikoak bete behar dituzten baldintzei dagokienez, erakunde ezberdinek, irizpide ezberdinak azaltzen dituzte, eta berauek honako taulan daude laburbildurik (Benito Lopez, 1995) :

Grafiko 7: Informazioaren ezaugarriak

	Maschmeyer eta Van Daniker	Rutherford	Jones eta Pendlebury	Jones eta Kimbro	NCGA	GASB	FASB	IGAE	IFAC
Eskuragarria	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
Osoa	<input checked="" type="checkbox"/>				<input checked="" type="checkbox"/>				
Ulegarria	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>		<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>		<input checked="" type="checkbox"/>
Konparagarria	<input checked="" type="checkbox"/>		<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>		<input checked="" type="checkbox"/>
Uniformetasuna	<input checked="" type="checkbox"/>		<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>		<input checked="" type="checkbox"/>
Garrantzisia		<input checked="" type="checkbox"/>			<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
Egiazkoa		<input checked="" type="checkbox"/>				<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>		<input checked="" type="checkbox"/>
Objektiboa			<input checked="" type="checkbox"/>					<input checked="" type="checkbox"/>	
Argia					<input checked="" type="checkbox"/>			<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
Zehatza					<input checked="" type="checkbox"/>				
Neutrala						<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	
Ezinbestekoa						<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>		<input checked="" type="checkbox"/>
Konprobagarria						<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	
Identifikagarria								<input checked="" type="checkbox"/>	
Arrazoizko gertutasuna								<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>

Norberak eginda. *Iturria*: Benito Lopez, Bernardino

VII. NOLA NEURTU DAITEKE KAUDIMENA UDALETXEETAN?

Entitate publikoen kaudimena neurtu ahal izateko hainbat adierazle eta ratio aurki ditzakegu. Adierazle bat, aldagarri nabarmen gisa aukeratutako neurketa tresna bat da, errealitate konplexu bat isla dezakeena, momentu konkretu bat edo denbora epe batean (IGAE, 2007). Ondorengoak dira horietako batzuk. Hauetariko batzuk, rankinga egiteko garaian baliagarriak izango dira.

AURREZKI ARRUNT GORDINA

Aurrezki arrunt gordinak, enpresak, bere ohiko jarduerarekin lortzen duen emaitza adierazten du, hau da, ohiko jarduerarekin lortutako sarreraren (sarreretak I, II, III, IV eta V kapituluak) eta ohiko jarduerarako burutako gastuen (gastuetako I, II, eta IV kapituluak) arteko diferentzia. Beste hitz batzuekin, sarrera arruntekin gastu arruntei aurre egin ondoren gelditzen den zatia da.

$$\text{Aurrezki Arrunt Gordina} = \sum_{i=1}^5 \text{Sarrerak} - \sum_{i=1,2,4} \text{Gastuak}$$

Adierazle honi esker, udalak bere ohiko sarrerekin finantza gastuak ordaintzeko eta inbertsioak egiteko duen ahalmenari buruz jakin dezakegu.

Aurrezki arrunt gordinaren zenbatekoa, beti, maileguengatik ordaindu beharko duen zenbatekoa baino handiagoa izan beharko du, hau da, gastuetako IX. Kapituluaren zenbatekoa baino gehiago. Hala ez balitz, udaletxearen desoreka egoera nabarmenduko litzateke, izan ere, enpresaren ohiko jarduera ez denez zama finantzarioari aurre egiteko, ez ohiko jarduerarekin finantzatu beharko luke.

Udaletxe ezberdinak konparatzeko garaian, ordea, aurrezki arrunt gordinaren zenbateko absolutua baino egokiagoa izan daiteke zenbateko erlatiboa, hots, biztanleko aurrezki arrunt gordina

AURREZKI ARRUNT GARBIA

Kaudimena neurtzeko neurrietako bat aurrezki arrunt garbia izan daiteke. Aurrezki garbia, ohiko sarrerekin gastu arruntak eta epe luze zein, laburrerako zorren amortizazioak ordaindu ondoren geratzen zaigun aurrezki izango litzateke. Hau da, beste hitz batzuetan esanda, zama finantzarioa ordaindu ondoren geratzen den aurrezki gordinaren zatia izango da aurrezki arrunt garbia (Udalgida)(Velasco Zapata, 2014/07/15).

Aurrezki arrunt garbiaren zenbatekoa beti 0 edo handiagoa izan beharko du, hau da, beti positiboa edo nulua izan behar du. Honen balioa negatiboa bada, esan nahi du ohiko gastuak (gastuen I, II, eta IV kapituluak) kapital sarreraren bidez finantzatzen dituela (sarreraren VI,VII,VIII eta IX kapituluak) edota diruzaintza gerakina negatiboa dela. Kasu horretan, udalak gehienez 3 urtetarako saneamendu plan finantzarioa aurkeztu beharko du, kudeaketa- , zerga- , finantza- eta aurrekontu- neurriak hartuz.

Aurrezki arrunt garbia gero eta handiagoa den heinean, Udaletxearen egoera osasuntsuagoa dela esan daiteke, ohiko jarduerekin ohiko gastuak finantzatzeko gaitasuna erakusten baitu.

Aurrezki arrunt garbiaren zenbateko absolutuaren kalkulua, honela laburbildu daiteke:

Aurrezki Arrunt Garbia = \sum Ohiko sarrerak - \sum Gastu arruntak - \sum Zorren amortizazioak

Aurrezki Arrunt Garbia = $\sum_{i=1}^5$ Sarrerak - $\sum_{i=1,2,4}$ Gastuak - $\sum_{i=3,9}$ Gastuak

Aurrezki Arrunt Garbia = Aurrezki Arrunt Gordina - $\sum_{i=3,9}$ Gastuak

Horretaz gain, aurrezki arrunt garbia zenbateko erlatiboetan ere kalkulatu daiteke, hau da, aurrezki arrunt garbiak udaletxearen sarrera arruntekiko suposatzen duen portzentajea, edota baita biztanleko aurrezki arrunt garbia ere:

Aurrezki Arrunt Garbia (%) = $\frac{\text{Aurrezki Arrunt Garbia}}{\text{Sarrera arruntak}} \times 100$

Aurrezki Arrunt Garbia (biztanleko) = $\frac{\text{Aurrezki Arrunt Garbia}}{\text{Biztanleria}}$

Espainiar Estatuan, gainera, aurrezki garbi negatiboa duten entitate lokalek, ezin dute zor berririk adostu. Arau hau, “*Ley de Acompañamiento*” (Jefatura del Estado, 1996) delakoan dator.

ZOR BIZIA

Zor bizia, Udal batek hitzartu dituen epe luzerako maileguren artetik, amortizatu gabe daukan zatia da. Zenbateko hau, beste herri batzuetako udalekin konparatu ahal izateko, biztanleko duten zor bizia kalkulatzeko interesgarria izan daiteke. Izan ere, bestela, hiririk handienek izango dute, logikoki zorrik handiena, baina horrek ez du esan nahi egoera txarragoan dagoenik, biztanle gehiago dituen heinean, beharrak ere handiagoak baitira.

Bestalde, balio erlatiboa ere kalkulatu daiteke, hots, udal batek amortizatu gabeko epe luzeko maileguren, bere ohiko jardueratik lortzen dituen sarrerekiko suposatzen duen portzentajea. Honekin, jakin daiteke enpresak bere ohiko jardueratik lortzen duen euro bakoitzeko zenbateko zorra duen. Honek, Gipuzkoako entitate lokalen aurrekontu oreka eta jasangarritasun finantzarioaren gaian Gipuzkoako Diputazio Foralak esandakoari jarraiki, ezin zuen %95a gainditu 2013 eta 2014. urteetan (*Norma foral 1/2013, de 8 de febrero, por la que se desarrolla la competencia de tutela financiera en materia de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera de las entidades locales de gipuzkoa*, 2013). Zor biziak kaxa eta bankuetako kreditu finantzarioak, errenta finkoko baloreak eta hirugarrenei transferitutako prestamuak soilik hartzen dira kontuan, eta zor komertziala kanpo geratzen delarik (Transparencia de Cuentas Públicas).

Espainiar estatuko udalen zor bizia Hazienda eta Administrazio Publikotik (Ministerio de Hacienda y Administraciones Públicas) lortu daiteke, eta Gipuzkoako datuak berriz, Udalgidatik (Udalgida, 2015/03/27).

ZORRAREN ITZULTZEA

Zorraren itzultzearekin, udal batek, bere ohiko jarduera berarekin jarraituko balu, duen zor bizia itzultzeko beharko lituzken urte kopurua adierazten du. Jordi Mabras-en arabera (Mabras, 2011), ratio honekin etorkizunean udalak izan ditzakeen arazoen pista bat lor daiteke.

$$\text{Zorraren itzultzea} = \frac{\text{Zor bizia}}{\text{Aurrezki gordina}}$$

Aurrezki gordina negatiboa den kasuetan, zorraren itzultze epea mugagabea dela jarriko dugu, izan ere, udalak lortutako aurrezki gordina negatiboa izanik, zorra ordaintzeko epea oso handia izango da, adierazle horren emaitza desitxuratu egingo baita.

SUPERABIT/DEFIZIT EZ FINANTZARIOA

Honen bidez, udaletxeen aurrekontu oreka kalkulatu daiteke, hau da, sarrera ez finantzarioekin gastu ez finantzarioei aurre egiteko duen gaitasuna neurtzen da. Horretarako, sarrera ez finantzarioei (sarreraren I-VII kapituluak) gastu ez finantzarioak kendu behar zaizkio (gastuen I-VII kapituluak). Honekin, entitateak aurreikusitako inbertsioak egiteko daukan finantzaketa beharra ezagutu daiteke, edo alderantziz, finantzaketa gaitasuna duen. Adierazle honek, ez ditu eragiketa finantzarioak kontuan hartzen, hots, sarrera eta gastuetako VIII eta IX kapituluak, izan ere, finantza aktibo eta finantza pasiboek, udaletxeen emaitza distortsionatu dezakete. Hala ere, diruzaintza gerakina 8.kapituluan egonik, gai eztabaidagarria izan daiteke, diruzaintza gerakina ohiko jarduerarekin lortua izan baitaiteke neurri batean (Farfán Pérez & Velasco Zapata, 2009a).

$$\text{Superabit/defizit ez finantzarioa} = \sum_{i=1}^7 \text{Sarrerak} - \sum_{i=1}^7 \text{Gastuak}$$

Bai estatu mailan eta maila internazionalen dagoen arau ezberdin multzoa dela eta, datu homogeenak lortzeko asmoz, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2012ko Apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak (*Ley orgánica 2/2012, de 27 de abril, de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera*, 2012), SEC-95-en metodoak jarraitzea erabaki da. Honen arabera, kontabilitate nazionalen superabit/defizita kalkulatzeko, eragiketa finantzarioak ez dira kontuan hartu behar. Defizit edo superabita kalkulatzeko, edo berari buruzko informazioa izateko, eskuragarri dago Ekonomia eta Hazienda Ministerioaren manuala: "*Manual del cálculo del déficit en contabilidad nacional adaptado a las corporaciones legales del Ministerio de Economía y Hacienda*".

Gainera, udal ezberdinen superabit edo defizit ez finantzario hau erkatu ahal izateko, balio erlatiboak kalkulatzeko komeniko zaigu, ez baita berdina biztanleria handiko hiri handi baten emaitza edota herri txiki batena. Hori dela eta, adierazle honek biztanleko duen zenbatekoa aztertuko da.

Udal batek ezin du ekitaldia defizitaren itxi, hau da, sarrerak ezin dute gastuak baino txikiagoak izan (BOE, 1978/12/29). Hala bada, hurrengo ekitaldiko sarrerekin finantzatu beharko du defizita.

FINANTZA KARGA edo LEGEZKO ZORPETZE MAILA

Adierazle honek, udal batek, bere maileguengatik ordaindu behar dituen interes eta amortizazioek sarrera arruntekiko duten portzentajea adierazten dute. Beste modu batera esanda, udalak, bere ohiko jarduerarekin lortzen duen sarreren euro bakoitzeko, zenbat bideratu behar dituen interes eta amortizazioen ordainketara. Udalek, gastu hauei aurre egiteko sarrera arruntetatik egin beharreko sakrifizioa dela esan daiteke (Farfán Pérez & Velasco Zapata, 2009b).

Finantza karga honen balioa Gipuzkoan ezingo da %25-a baino handiagoa izan (Ibarloza Arrizabalaga, Erkizia Olaizola, & Ibarloza Arrizabalaga, 2014), hala izateko, Foru Aldundiarekin finantzaketa plan berezi bat sinatu beharko baita. Espainiaren kasuan ere, portzentajea berdina da, eta gainditzen bada, Ekonomia eta Hazienda Ministerioaren baimena behar da (Ministerio de Economía y Hacienda, 2004).

Ratio honen balioa gero eta txikiagoa izatea komeni dela ondorioztatu daiteke, beraz, baina, posible da, ratio honen igoera batek udalaren egoera ona erakustea ere. Adibidez, udal batek, duen zor handia dela eta, zor hori azkarrago amortizatzeke erabakia hartzen badu, eta urte horretan amortizatzen duen zenbatekoa handia bada, finantza karga ere igo egiten da, noski, baina duen zorraren zenbatekoa gutxiarazteagatik egin duelako. Beraz, egoera onuragarria dela esan daiteke, hurrengo urteetan, bai interes eta bai amortizazio gutxiago izango baitu.

$$\text{Finantza karga} = \frac{\text{Gastuetako III eta IX kapituluak}}{\text{Sarrera arruntak}}$$

Bestalde, udaletxe batek, ekitaldi batean diruzaintza gerakina duela eta, zorraren zati handi bat itzultzea erabakitzen badu, honek, finantza karga asko igoko duela argi dago. Urte horretako finantza karga, ordea, ez da izango udal horren ongien erakusten duena, finantza karga desitxuratuko baitu. Kasu horietan, ez dira kontuen hartuko honen gorabehera handiak.

ZORPETZE MUGA

Zorpetze muga, aurretik aipatutako zama finantzario hori ordaindu ondoren geratzen den aurrezki gordinaren zatia da. Beste modu batera esanda, udalak ohiko jardueratik lortutako soberakinarekin, zorraren interesak eta amortizazioa ordaindu ondoren, geratzen den zatia izango da zorpetze muga.

Aurrezki gordina negatiboa edo zama finantzarioa aurrezki gordina baino handiagoa den kasuetan, zorpetze muga 0 dela kontsideratuko da.

$$\text{Zorpetze muga indizea} = 100 - \left(\frac{\text{Gastuetako III eta IX kap.}}{\text{Aurrezki gordina}} \times 100 \right)$$

BATAZ BESTEKO ORDAINKETA EPEA

Udal batek, bere hornitzaileei edo hartzekodunei, zorra bat az beste zein epetan ordaintzen dien adierazten du. Bat az beste, bere hartzekodunei zenbat egunetara ordaintzen dien zorraren zenbatekoa, alegia. Honi esker, udalak, bere zorrak ordaintzeko zenbateko ahalmena duenari buruz zenbait datu lor ahal izango ditugu, izan ere, gero eta egun gehiago behar baditu bere zorrak ordaintzeko, kaudimen arazoak izateko probabilitate handiagoa izango du (Mabras, 2011).

Honen kalkulurako, honako formula aplika dezakegu:

$$\frac{\text{ordaintzeke dauden partidak}}{\text{obligazioak guztira}} \times 365$$

Obligazioen barnean, gastuetako II eta VI kapituluak bakarrik hartuko dira kontuan.

Gainera, 635/2014 dekretu errearen arabera (*Real decreto 635/2014, de 25 de julio, por el que se desarrolla la metodología de cálculo del periodo medio de pago a proveedores de las administraciones públicas y las condiciones y el procedimiento de retención de recursos de los regímenes de financiación, previstos en la ley orgánica 2/2012, de 27 de abril, de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera, 3.art., 2014*), Administrazio Publikoen bat az beste ko ordainketa epea kalkulatzeko, fakturen erregistroan urte bakoitzeko urtarrilaren 1etik aurrera dauden faktura eta sistema baliokideak hartuko dira kontuan. Ez dira kontuan hartuko kontabilitate nazionalaren arloan administrazio publikoen artean egindako transakzioak, ezta hornitzaileei ordainketak finantzatzeko fondoaren (Ministerio de Hacienda y Administración Pública) ordaindutako obligazioen zenbatekoak ere.

Lege honek, honako formula ezartzen du bat az beste ko ordainketa epea kalkulatzeko:

$$\text{B.b. ord. epea} = \frac{\begin{array}{c} (\text{ordaindutako eragiketen ratioa} \times \text{ordaindutako zenbateko totala}) \\ + \\ (\text{ordaindu gabeko eragiketen ratioa} \times \text{ordaindu gabeko gastuak}) \end{array}}{\text{ordaindu gabeko gastuak} + \text{ordaindutako zenbatekoa}}$$

$$\text{Ordaindutako eragiketen ratioa} = \frac{\sum(\text{ordainketa epea egunetan}^2 \times \text{ordaindutako zenbatekoa})}{\text{ordaindutako zenbateko totala}}$$

²Ordainketa epea egunetan, faktura sartzen den egunetik 30 egun pasa ondoren igarotzen den egun kopurua da.

BATAZ BESTEKO KOBURU EPEA

Udal batek jasotzen dituen zerga eta tasak kobratu ahal izateko bataz beste igarotzen duen epea da, hots, zerga eta tasak kobratzen bataz beste behar duen egun kopurua. Horretaz gain, udalak zerga eta tasa hauen kobrurako duen biltze gaitasuna neurtu daiteke, baita herritarren diziplina fiskala ere, hau da, beraien betebeharrak fiskalak aurrera eramateko duten diziplina maila.

Bere kalkulua, honako formularen laburbildu daiteke:

$$\frac{\text{kobratzeke dauden partidak}}{\text{eskubideak guztira}} \times 365$$

Kobratzeko partidaren barne, sarreraren I, II eta III kapituluak barneratuko dira, hau da, udalaren zerga zuzen, zeharkako zerga eta tasak.

Hala eta guztiz ere, Gipuzkoako udalei dagozkien datu hauek eskuratzeko zailtasunak kontuan harturik, bataz besteko kobru epea eta bataz besteko ordainketa epea ez dira rankingean sartuko.

DIRUZAINZTA GERAKINA

Diruzaintza gerakina, udaletxeak abenduaren 31an duen diru likidoari, bere burutu gabeko ordainketa obligazioak kenduz eta kobratu gabeko kreditu eskubideak gehituz lortzen den emaitza da (Melerio Balcazar, 2009). Horrekin, diruzaintza gerakina gordina lortuko genuke, baina saldo kobragaitzen zenbatekoa eta finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina kenduz, gastu orokorretarako diruzaintza gerakina lortuko dugu. Diru likidoa, udalak kaxan duen dirua, bankuetako kontuetan duena eta likidotasan handia duten inbertsioetan inbertitutako diruak osatuko du.

Saldo kobragaitzen zenbatekoa kalkulatzeko, zorraren antzintasuna edota dagozkien baliabideen izaera hartu ohi dira kontuan (Ministerio de Economía y hacienda, 2010).

Beste definizio bat ematearren, Kontabilitate Publikoko Plan Orokorraren (Ministerio de Economía y hacienda, 2010) arabera, diruzaintza gerakina ekitaldiko eta aurreko ekitaldietako aurrekontu emaitzen baturak osatzen du, hurrengo ekitaldietan gastuak finantzatzeko erabili daitezkeenak.

Bi berezitasun nagusi aipa daitezke diruzaintza gerakinari buruz: alde batetik, diruzaintza gerakinaren kalkuluan aurrekontuko eta aurrekontuz kanpoko eragiketarik hartzen dira kontuan; bestetik, diruzaintza gerakina prozesu luze baten ondorio den metaketa bat da, hau da, zenbateko metatua da, aurreko urteetan gertatutakoak eragina duela hurrengo urteetan ere (Erkizia, 2013). Datu metatua izatearen ondorioz, urte bakoitzeko egoera aztertzearen garaian, metaketa prozesua izan beharrean kontuan, urte bakoitzean izan duen bilakaera izango da kontuan, hots, diruzaintza gerakina igo edo jaitsi egin den (diruzaintza gerakina zenbait gastu finantzatzeko erabili bada).

Beraz, diruzaintza gerakin positiboa duen udal batek, diruzaintza gerakin hori erabili dezake aurrekontu aldaketak finantzatzeko (Dodero Jordán, 2001b). Diruzaintza gerakina duen udal batek, urteetan metatutako likidezia duela adierazten du, etorkizuneko gastuak finantzatzeko erabili daitekeena (Pina Martínez, 1994). Diruzaintza gerakin negatiboa duen udal batek, berriz, neurritz gain gastatu duela adierazten du (Udalgida, 2015/03/27) .

Likidazioko adierazlerik garrantzitsuenetako bat kontsideratzen da, izan ere, entitatearen egoera ekonomiko - finantzarioa islatzen du, eta gastuak finantzatzeko baliabiderik sortu den (positiboa den kasuetan) edo finantzatu beharreko defizitik ba al den ere adierazten baitugu (negatiboa bada) (Gestión Integral de Ayuntamientos (GIA), 2015).

Pablo Gayubo Perez ekonomialariak dio, diruzaintza gerakina entitate publiko batek aurreko urteetan zehar bildutako superabita edo defizita adierazten duen aldagai aldakor bat dela. Bere artikuluan dio (Gayubo Pérez, 2000), diruzaintza gerakina, entitate publiko batek ekitaldi itxieran duen metatu duen superabit edo defizita erakusten duen adierazlea dela, aurreko urteetako eragina kontuan hartzen duelarik eta kontabilitate azpistema guztien eragina hartzen du kontuan.

Diruzaintza gerakinaren zenbatekoa, gainera, sarrera arruntekin (hots, sarreren aurrekontuko I-V kapituluak) erlazionatuz, lortutako sarrera arruntetako euro bakoitzeko sortutako diruzaintza gerakina ere ratio interesgarria izan daiteke, esaterako, Camara de Comptos de Navarrak egindako txostenean, adierazle horixe erabili zuen udaletxeen egoera ekonomiko finantzarioa aztertzeko.

Diruzaintza gerakinaren kalkulurako, honako eskema jarraitu daiteke:

Grafiko 8: Diruzaintza gerakinaren kalkulua

DIRUZAINZAKO GERAKINA		
1.- DIRUZAINZAKO IZAKIN LIKIDOAK:		_____
2.- KOBRATU GABEKO SALDOAK (+):		_____
· Sarreren aurrekontuko zordunak: aurtengo ekitaldia (+)	_____	
· Sarreren aurrekontuko zordunak: ibxitako ekitaldiak (+)	_____	
· Aurrekontuz kanpoko zordunak (+)	_____	
· - Aplikatu gabeko kobrantzak	_____	
3.- ORDAINDU GABEKO SALDOAK (-):		_____
· Gastuen aurrekontuko hartzekodunak: aurtengo ekitaldia (-)	_____	
· Gastuen aurrekontuko hartzekodunak: ibxitako ekitaldiak (-)	_____	
· Sarreren aurrekontuko hartzekodunak (-)	_____	
· Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak (-)	_____	
· - Aplikatu gabeko ordainketak	_____	
4.- DIRUZAINZAKO GERAKIN GORDINA (1+2-3):		_____
5.- SALDO KOBRAGAITZAK:		_____
6.- DIRUZAINZAKO GERAKIN LIKIDOA (4-5):		_____
7.- FINANZAKETA LOTUA DUTEN GASTUETARAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA:		_____
8.- GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA (6-7):		_____

Iturria: Erkizia, A.

VIII. ZEIN DIRA NEURRIRIK EGOKIENAK?

Udalen kaudimenari buruzko analisisia egin ahal izateko, hainbat adierazle eta ratio proposatu ditugu, baina rankinga egiteko garaia, hauetatik egokienak direnak hautatu beharko ditugu, horretarako, bakoitzaren abantaila eta desabantaila nagusiak aztertuz.

Udalen analisisia egiterako garaian, adierazle edo ratio bakar bat kontuan hartuz gero, azterketa ez da konplexua izango eta hainbat hutsune izango lituzke, izan ere, udal baten kaudimen egoera ratio bakar batez aztertzea ez da nahikoa. Ratio eta adierazle ezberdinek, informazio ezberdina ematen digute, eta hori dela eta, hauen arteko konbinazio bat burutzea da egokiena ranking egokia egiteko. Horretarako, Camara de Comptos de Navarra-k egindako rankinga oinarri hartuz (Nafarroako Kontuen Ganbera, 2012/07/04), aurretik aipatutako adierazle batzuk hautatuko ditugu, hauen balioak kalkulatu eta bakoitzak duen balioari, 1etik 10erako puntuazioa emango zaio, 1 balioa egoerarik arriskutsuena izanik eta 10 egoera optimoa. Ondoren, adierazle guztiei emandako puntuazioak gehituko dira eta puntuazio altuena lortu duen udalak izango du posturik onena rankingean.

Alde batetik, aurrezki gordin eta garbiaren artean, Xabier Gaztelumendiren arabera (Gaztelumendi, 2005/10), aurrezki garbia da udalaren egoera ekonomiko finantzarioa ongien islatzen duen adierazlea, bereak diren baliabideekin kapital gastuak finantzatzeko zenbaterainoko ahalmena duen erakusten baitu. Gainera, aurrezki garbiari esker, udalaren etorkizuneko egoera aurreikustea ere posible da, aurrezki garbia osatzen duten elementuek (sarrera eta gastu arruntak) urtero antzeko egitura izateko joera izan ohi baitute. Horretaz gain, aurrezki garbiaren adierazleak, udalaren hainbat politika ezberdinen eraginkortasuna laburbiltzeko ahalmena dauka zenbaki bakar baten bidez (zerga politika, gastu politika ...). Adierazle hau, udalaren soberakin (superabit) edo defizitarekin lotuta dago. Bere abantailak ikusiz, gure rankingean erabiliko dugun ratioetako bat izango da aurrezki garbia.

Zor biziari dagokionez, udalen zorpetze mailari buruzko informazio egokia ematen duela esan daiteke. Hala ere, ez ditu zor guztiak kontuan hartzen, hau da, zor komertziala, esaterako, kalkulatik kanpo uzten du, eta kreditu erakundeetako amortizatu gabeko epe luzeko maileguak, errenta finkoko baloreak eta hirugarrenei transferitutako prestamuak barneratzen ditu. Horri esker, udalaren epe luzeko zorpetze mailari buruzko datu egokia lortzen dela esan daiteke, zor komertziala, normalean, epe laburrean likidatu ohi den zorra baita. Hala ere, zor bizia biztanleko datuetan aztertuko dugu, izan ere, balio absolutuetan aztertzeak ez digu informazio sendorik eskainiko.

Aurrekoarekin lotuta, zorraren itzultze epea ere ratio interesgarria da, udalak bere ohiko jarduerarekin zorra itzultzen igaro beharko duen batz besteko epeari buruzko ikuspuntua eskaintzen baitigu, epe luzeko ikuspuntua. Honen balioa gero eta txikiagoa den heinean, udalaren egoera hobea dela esan nahiko du. Hala eta guztiz ere, aurreko ratioaren osagarria dela esan daiteke.

Finantza kargak ere, udalaren zorpetzeari buruzko informazioa ematen digu, udalaren sarrera arruntekin, zorren interesek eta amortizazioek zenbaterainoko garrantzia duten adierazten baitu. Hala ere, honen bilakaerari buruz hainbat iritzi daude. Izan ere, finantza karga igotzeak, zorren interes eta amortizazioak igo edota

sarrera arruntak jaitzi direla esan nahi du, baina hori ez da zertan beti kaltegarria izan. Aurretik azaldu dugun gisan, udal batek finantza karga handia izan dezake, zor asko ari delako amortizatzen, baina egoera hori ona izan daitekeela uste da, etorkizunean zor gutxiago izango baitu. Bestetik, finantza karga igotzen bada zorren interesak igo direlako, egoera hori kaltegarria dela esan daiteke (Erkizia, 2013). Beraz, ratio honen arabera rankinga egitea ez da guztiz egokia, bere igoera edo jaitzierak nahiz balioak, ez duelako udalaren egoera islatzen beti.

Superabit edo defizitaren balioa ere, ezinbestekoa da udalaren egoera ekonomiko - finantzario eta,aldi berean, berauen kaudimenari buruzko analisisa egiteko. Udal batek, eragiketa finantzarioak alde batera utzita, sarrera eta gastuen arteko diferentzia zenbatekoa izan den adierazten du. Arlo honetan, hainbat lege eta arau garatu dira, entitate publikoen defizita kontrolatu eta arautu ahal izateko, garrantzi handiko gaia baita. Prentsan ere, asko lantzen den gaia da. Hori dela eta, gure rankingean parte hartuko duen adierazleetako bat izango da hau, beti ere, datu erlatiboetan, hots, biztanleko datuak.

Bataz besteko ordainketa eta kobru epeek, udalaren kobrantza eta ordainketa politikei buruzko informazioa ematen digute. Ordainketa epeari dagokionez, udal batek ordainketa epea luze zamarra badu, ordainketak burutzeko zailtasunak izan ditzakeela pentsa genezake. Baina, hala ere, nahiz eta ordainketa epea luzea izan, horrek ez du esan nahi ordainketa horiek aurrera eramateko ahalmenik ez duenik, hots, kaudimenik ez duenik. Hori dela eta, ratio honek informazio interesgarria ematen digun arren, ez dugu gure rankingean barneratuko, gainera honen kalkulurako beharrezko informazioa lortzeko zailtasunak daude. Kobru epeari erreparatuz, berriz, udalak daukan bilketa gaitasuna neurtu ahal izango du, hots, kobratu beharreko zerga eta tasak kobratzen igaro ohi duen bataz besteko egun kopurua.

Bukatzeko, diruzaintza gerakinari dagokionez, udalaren egoera modu egokian islatzen duen adierazleetako bat dela esan daiteke. Udalak, urtez urte metatu duen soberakinek osatzen dute eta honen zenbatekoak, udalaren gestio eta aurrera eramandako politikak efizienteak izan al diren esango digute. Diruzaintza gerakinaren zenbatekoa, gainera, zenbait kasuetan, biztanleko zenbatekoa edota aurreko ekitalditik izan duen bilakaera kalkulatzea ere interesgarria izan daiteke. Hala ere, beste zenbait kasuetan, diruzaintza gerakinaren zenbateko absolutua hobea izango da, esaterako, udalaren zorraren zenbateko absolutuarekin konparatzeko.

IX. RANKINGA: BALORAZIO PROZESUA

Rankingean parte hartuko duten adierazle eta ratio ezberdinak aipatu ondoren, hauen balorazioa egitera pasa behar da. Lehenik, udaletxe bakoitzaren kasuan, adierazle bakoitzari 1etik 10erako puntuazioa zaio. 1 kalifikazioa lortzen duena, adierazle horren balio desegokiena duela esan nahi du, eta 10 kalifikazioa lortzen duenak, berriz, adierazle horren balioa optimoa, egokiena dela. Balorazio hau egiteko, adierazle bakoitzaren esanahia sakondu beharko da, eta bere balio egokia zein izango litzatekeen oinarri hartuta, handik gora eta behera dauden balioei balorazio ezberdinak esleituko zaizkie.

Aurrezki arrunt gordina

Aurrezki arrunt gordinaren kasuan, dakigun bezala, positiboa izatea komeni da, izan ere, negatiboa izateak udalaren ohiko jarduerarekin lortzen duen emaitza negatiboa izatea esan nahi du, hots, ez dela gai bere sarrera arruntekin gastu arruntak estaltzeko. Gainera, gastuen XIX. Kapituluak baino handiagoa izatea ere komeni da. Hori dela eta, garbi dago, lehenik eta behin, aurrezki arrunt gordin negatiboa duten udalei balorazio baxua emango zaiela, eta positiboa dutenei altuagoa. Urte bakoitzeko zenbateko maximoak eta minimoak eta batz bestekoak aztertuz, biztanleko datuetan, honakoa jakin daiteke:

Taula 11: Aurrezki gordinaren maximo, minimo eta batz bestekoak

AURREZKI ARRUNT GORDINA (bizt.)	2013	2012	2011	2010	2009	2008
Minimoa	22,29	-2,03	-278,48	-92,73	-236,36	-82,73
Maximoa	978,05	1.267,09	823,85	1.569,01	1.121,72	1.608,95
Batz bestekoa	269,72	267,23	140	212,93	130,68	264,26

Iturria: norberak egina

Ikus daitekeenez, 2013. urtean izan ezik, gainontzekoetan aurrezki arrunt gordin negatiboa duten udalak badira. Argi dago aurrezki arrunt gordin negatiboa duten udalei arlo honetan kalifikazio baxua jarriko zaiela, 0 konkretuki. Hori dela eta, adierazle honen baloraziorako honako eskema jarraituko da:

Taula 12: Biztanleko aurrezki gordinaren balorazioa

	2013	2012	2011	2010	2009	2008
0	≤0	≤0	≤0	≤0	≤0	≤0
1	0-100	0-150	0-104	0-169	0-121	0-169
2	100-210	150-290	104-194	169-344	121-246	169-349
3	210-320	290-430	194-284	344-519	246-371	349-529
4	320-430	430-570	284-374	519-694	371-496	529-709
5	430-540	570-710	374-464	694-869	496-621	709-889
6	540-650	710-850	464-554	869-1044	621-746	889-1069
7	650-760	850-990	554-644	1044-1219	746-871	1069-1249
8	760-870	990-1130	644-734	1219-1394	871-996	1249-1429
9	870-978	1130-1267	734-823,85	1394-1569	996-1121	1429-1608
10	>978,05	>1267,09	>823,85	>1569,01	>1121,72	>1608,95

Iturria: Norberak egina

Aurreko taulan ikus daiteke biztanleko aurrezki gordina baloratzeko erabilitako irizpidea. Urte guztietan, biztanleko aurrezki arrunt gordin negatiboari 0 kalifikazioa esleitu zaio, izan ere, adierazle horrek balio negatiboa izateak, udalak bere ohiko sarrerekin ohiko gastuak finantzatzeko duen ezgaitasuna adierazten du. Ondoren, urte bakoitzean balio maximoari 10 puntuko kalifikazioa eman diogu. Tarteko balorazioei dagokionez, Otik hasi eta balio maximorainoko tartekak sortu dira.

Beraz, esan daiteke, honen balioari emango zaion balorazio, puntuazio onena lortu duenaren arabera izango dela, hots, puntuazio altuena zein izan denaren arabera, udal bakoitzak puntuazio ezberdina lor dezake. Honekin, udal bakoitza, Gipuzkoan adierazle horri dagokionez egoera onenean dagoen udalarekin konparatzea lortu dugu.

Aurrezki arrunt garbia

Aurrezki arrunt garbia ere, positiboa izatea komeni da, hots, udalaren ohiko jardueratik lortutako emaitzarekin gastu finantzarioak (gastuetako IX. kapitulua) ordaindu ondoren, soberakin positiboa izatea gomendatzen da. Ondorengo taulan, bere biztanleko datu maximo eta minimoak ikus daitezke, baita batz besteko zenbatekoak ere:

Taula 13: Aurrezki garbiaren maximo, minimo eta batz bestekoak

AURREZKI ARRUNT GARBIA (bizt.)	2013	2012	2011	2010	2009	2008
Minimoa	-175,07	-206,48	-304,34	-417,84	-401,64	-82,73
Maximoa	756,38	969,93	683,66	1.414,98	964,15	876,36
Batz bestekoa	163,13	152,78	44	131,74	54,48	210,40

Iturria: Norberak egina

Aurrezki arrunt garbiari dagokionez, ikus daiteke zenbateko negatiboak ere badirela, nahiz eta zenbateko maximoek biztanleko 1.400€-tarainoko aurrezki garbia ere erakusten duten. Honek udalen arteko egoera ezberdinak erakusten ditu, egoera finantzario guztiz ezberdinak alegia. Bataz bestekoak ere, dezente aldatu izan dira urtez urte, batez ere 2011 eta 2009 urteetan (beherakada garrantzitsua izan zuten).

Bere balorazioari dagokionez, aurrezki gordinaren antzeko joera hartuko dugu, hau da, aurrezki garbi negatiboek 0 kalifikazioa emango diegu. Ondorengo balorazio irizpidea jarraituko da:

Taula 14: Aurrezki garbiaren balorazioa

	2013	2012	2011	2010	2009	2008
0	≤0	≤0	≤0	≤0	≤0	≤0
1	0-40	0-77	0-69	0-130	0-110	0-76
2	40-110	77-187	69-144	130-290	110-215	76-166
3	110-180	187-297	144-219	290-450	215-320	166-256
4	180-250	297-407	219-294	450-610	320-425	256-346
5	250-320	407-517	294-369	610-770	425-530	346-436
6	320-390	517-627	369-444	770-930	530-635	436-526
7	390-460	627-737	444-519	930-1090	635-740	526-616
8	460-530	737-847	519-594	1090-1250	740-845	616-706
9	530-600,21	847-957,46	594-669,63	1250-1410,44	845-950,99	706-796,19
10	>600,21	>957,46	>669,63	>1410,44	>950,99	>796,19

Iturria: Norberak egina

Ikus daitekeen bezala, honen baloraziorako ere aurreko irizpide berdina jarraitu da, hots, biztanleko aurrezki garbi negatiboek 0 nota eman zaie, eta, beste aldetik, per capita aurrezki garbi handiena lortu duen udalari 10 puntu.

Zor bizia

Zor biziari dagokionez, hemen ere udal ezberdinak erkatu ahal izateko datu erlatiboak hartu beharko dira, konkretuki biztanleko zor biziaren zenbatekoa. Bere balioen tarteak aztertzeko, balio maximo eta minimoak aztertuko dira lehenik eta behin, eta honakoak dira lortutako emaitzak:

Taula 15: Zor biziaren maximo, minimo eta bataz bestekoak

ZOR BIZIA (bizt.)	2013	2012	2011	2010	2009	2008
Minimoa	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Maximoa	1.383,81	1.657,46	1.770,46	1.911,31	1.525,29	1.531,39
Bataz bestekoa	422,94	487,76	539,60	556,14	509,73	495,09

Iturria: Norberak eginda

Zor biziaren kasuan, garbi dago ez dagoela zenbateko negatiborik izaterik. Badira, ordea, hainbat udal zor bizirik ez daukatenak. Hori dela eta, zor bizia 0 tik hasita goraka joan daiteke. Gipuzkoako bataz besteko zor bizia biztanleko 400€ eta 500€ bitartean dabil azken urteetan. Hala ere, bataz bestekotik gora badira hainbat udal. 2010. urtean, esaterako, Mutiloak biztanleko 1.911€-tako zor bizia zuen bere likidazioetan.

Datuak ikusirik, biztanleko zor bizirik ez duten udalei, 10 puntu emango zaizkio, zorraren kasuan egoera ona dela esan baitaiteke. Hala ere, horrek ez du esan nahi zorrik ez duen udala dela ondoen dagoena, izan ere, zorrik izan ez arren bere zerbitzuetan hutsune asko izan ditzake, edota bere ohiko jarduerarekin ezin ohiko gastuak finantzatzea. Atal honetan, ordea, zor bizia modu isolatu eta independentean baloratzen ari garenez, zorrik ez duen udala izango da puntu gehien jasoko dituen, eta zor gehien duenak puntu gutxien. Ondorengo taulan laburbiltzen da emango diren puntuazioak:

Taula 16: Zor biziaren balorazioa

	2013	2012	2011	2010	2009	2008
0	1384	1657	1770	1911	1525,29	1531
1	1229-1384	1472-1657	1570-1770	1696-1911	1355-1525,29	1361-1531
2	1074-1229	1287-1472	1370-1570	1481-1696	1185-1355	1191-1361
3	919-1074	1102-1287	1170-1370	1266-1481	1015-1185	1021-1191
4	764-919	917-1102	970-1170	1051-1266	845-1015	851-1021
5	609-764	732-917	770-970	836-1051	675-845	681-851
6	454-609	547-732	570-770	621-836	505-675	511-681
7	299-454	362-547	370-570	406-621	335-505	341-511
8	144-299	177-362	170-370	191-406	165-335	171-341
9	0-144	0-177	0-170	0-191	0-165	0-171
10	0	0	0	0	0	0

Iturria: Norberak eginda

Zorraren itzultze epea

Zorraren itzultze epeei dagokionez, datan duen zorra bere ohiko jardueretatik sortutako soberakinekin itzuli ahal izateko behar duen urte kopurua adierazten du. Adierazle hau aurrekoaren osagarria dela esan daiteke, izan ere, nahiz eta udal batek zor handia izan, bere ohiko jarduera efizientea bada aurrezki arrunt gordin altuak lortzen baditu, zor hori berehala itzuli ahal izango du. Aldiz, beste aldetik, zor gutxiago duen beste udal batek, aurrezki gordin baxuagoak lortzen baditu, nahiz eta zorraren zenbatekoa baxuagoa izan, hau itzultzeko urte gehiago behar izatea posible da.

Adibide gisa 2010.urtea harturik, Irun eta Legazpiren kasuak konparatzen baditugu, honakoa ikus daiteke: Irunen zor bizia Legazpirena baino askoz handiagoa da, Irunek biztanleko 798€tako zorra duen bitartean, Legazpik 178€koa baitu (zenbateko absolutuetan Irunek 48.630.663€ eta Legazpik 1.555.427€); hala ere, aurrezki gordinak aztertzen baditugu, Legazpik bere ohiko jarduerarekin lortzen duen aurrezki gordina askoz txikiagoa da Irunenaren aldean. Hori dela eta, nahiz eta Legazpik zor txikiagoa izan, aurrezki gordin txikiagoa lortzen duenez, urte gehiago beharko ditu zorra itzultzen. Irunek, bestalde, zor handia izan arren, bere aurrezki gordina altua izan denez, zorra itzultzeko epea baxuagoa da.

Azkenik, aipatu behar da kasu berezi bat. Aurrezki arrunt gordina negatiboa duten udalen kasuan, zorraren itzultze epeak oso handiak izango dira, ez baitira ohiko jarduerarekin soberakina sortzeko gai, eta, kasu horietan, zorraren itzultze epea, mugagabea dela esango da, salbuespen gisa kontsideratuko baita.

Bere balioei buruzko gerturapen bat egitearren, bere balio maximo, minimo eta batz bestekoak laburbiltzen ditu taula honek, beti ere, zorraren itzultze epe mugagabeak kontuan hartu gabe:

Taula 17: Zorraren itzultzearen balio maximo, minimo eta batz bestekoak


ZORRAREN ITZULTZE EPEA	2013	2012	2011	2010	2009	2008
Minimoa	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Maximoa	7,39	13,45	47,34	49,85	122,04	27,88
Bataz bestekoa	1,84	2,16	5,26	4,03	6,89	3,50

Iturria: Norberak egina

Ikus daitekeen bezala, zorrik ez duten udalak daudenez, hauen zorraren itzultze epea ere hutsa izango da. Bestalde, badira zorraren itzultze epe oso handia duten udalak ere, zor handia dutelako edota ohiko jarduerarekin lortzen duten aurrezki ez delako handia ere.

Adierazle honen baitan, ordea, bada aipatu beharreko salbuespen edo doikuntza berezi bat, Gabiriako udalaren kasua konkretuki. Bere bilakaera aztertuz, ikus daiteke, 2009.urtean izugarrizko gorakada izan zuela zorraren itzultzeak, 122 urtetaraino igoz, izan ere, biztanleko zorraren zenbatekoa gutxitu arren 2008tik 2009ra, 2009 ekitaldian Gabiriako udalak lortutako aurrezki gordina asko jaitsi zen. Beherakada horren ondorioz, zorraren itzultze epea 122 urtetaraino igo da, baina ikus dezakegu 2010.urtean, egonkortu egin dela, 5,51 urtetaraino jaitsiz, izan ere, aurrezki gordina bere ohiko zenbatekoetara inguratzea lortu zuen.

Grafiko 9: Gabiriako zorraren itzultze epearen bilakaera



Iturria: Norberak egina.

Hori dela eta, Gabiriako udaletxeak adierazle honi dagokionez, 2009.urtean zuen egoera salbuespen bat izan zela esan daiteke, eta ez dela udalaren egoera islatzen duen zenbatekoa. Beraz, doikuntza bat egin da, eta 2009ko zorraren itzultze epea, azterketako beste urteen batz besteko itzultze epea izango da, udalaren egoera ez desitxuratzeko asmoz. Ondorioz, 2009ko zorraren itzultze epearen zenbateko doituia 6,2 urtetakoa izango da.

Ondorioz, zorraren itzultze epeei honako balorazioa ematea erabaki da:

Taula 18: Zorraren itzultzearen balorazioa

	2013	2012	2011	2010	2009	2008
0	>7 edo mugagabea	>13 edo mugagabea	>47 edo mugagabea	>49 edo mugagabea	> 34 edo mugagabea	>27 edo mugagabea
1	6-7	12-13	40-47	44-49	32-34	24-27
2	5,5-6	10,5-12	35-40	38,5-44	28-32	21-24
3	5-5,5	9-10,5	30-35	33-38,5	24-28	18-21
4	4,5-5	7,5-9	25-30	27,5-33	20-24	15-18
5	4-4,5	6-7,5	20-25	22-27,5	16-20	12-15
6	3-4	4,5-6	15-20	16,5-22	12-16	9-12
7	2-3	3-4,5	10-15	11-16,5	8-12	6-9
8	1-2	1,5-3	5-10	5,5-11	4-8	3-6
9	0-1	0-1,5	0-5	0-5,5	0-4	0-3
10	0	0	0	0	0	0

Iturria: Norberak egina

Superabit/defizit ez finantzarioa

Emaitza ez finantzarioari dagokionez, hots, superabit edo defizit ez finantzarioa izan duen udalak aztertzean, emaitza positiboa (superabita) edo negatiboa (defizita) izan den aztertuko da lehendabizi. Defizita duten udalen kasuan, kalifikazioa baxua izango den bitartean, superabita dutenena aurrekoena baino altuagoa izango da. Zenbateko absolutuen ordeaz, ordea, erlatiboa aztertu behar da, kasu honetan, biztanleko datuak.

Bere bilakaera, balio maximoak, balio minimoak eta urtez urteko batz besteko balioak aztertu dira:

Taula 19: Superabit/defizitaren balio maximo, minimo eta batz bestekoak

SUPERABIT/DEFIZIT EZ FINANTZARIOA	2013	2012	2011	2010	2009	2008
Minimoa	-441,3	-1196,63	-5456,22	-1568,19	-1063,24	-1564,81
Maximoa	830,8	1114,06	998,78	6500,53	1007,50	2534,54
Batz bestekoa	131,02	161,47	114,49	25,22	-129,51	-35,04

Iturria: Norberak egina

Superabit edo defizit ez finantzarioa aztertzean, biztanleko datua hartu da balio erlatibotzat, hots, udalak ekitaldi bakoitzean lortu duen emaitza positibo edo negatiboak biztanleko suposatzen duen zenbatekoa. Defizita bada, biztanleko defizita izango da, eta superabita bada, biztanleko superabita.

Ikus daitekeenez, zenbatekoak oso heterogeneoak dira. Balio minimo guztiak negatiboak dira, hau da, urtero badago udalen bat defizitarekin ixten duena. Balio maximoei dagokionez, aldaketa handiak jaso dira.

Nabarmentzekoa da 2010.urtean, Baliarrainen kasua: superabita izan zuen, 780.064€-takoa, baina 120 biztanleko herri batean, zenbateko hori oso handia da. Jasotako transferentzia arruntek gorakada esanguratsua izan zuten, eta hori dela eta, superabitaren emaitza asko igo zen. 2011.urtean, berriz, inbertsio errealetan egindako gastua ohikoa baino handiagoa izan da, seguruenik, aurreko urtean jasotako diru laguntzengatik. Ondorioz, 2011a defizit handia izango du. Esan daiteke, 2010eko superabita 2011ko defizitarekin lotuta dagoela, hau da, elkar konpentsatuko direla. Hori dela eta, emaitza hauek udalaren egoera distorsiona ez dezaten, 2010 eta 2011 urteetan biztanleko superabit edo defizita bien arteko batatz bestekoa izango da, zehazki biztanleko 522,16€-tako superabita.

Ondorengo taulan azaltzen da erabiliko den balorazio irizpidea:

Taula 20: Superabit/defizitaren balorazioa

	2013	2012	2011	2010	2009	2008
0	<0	<0	<0	<0	<0	<0
1	0-90	0-120	0-110	0-95	0-110	0-280
2	90-180	120-240	110-220	95-190	110-220	280-560
3	180-270	240-360	220-330	190-285	220-330	560-840
4	270-360	360-480	330-440	285-380	330-440	840-1120
5	360-450	480-600	440-550	380-475	440-550	1120-1400
6	450-540	600-720	550-660	475-570	550-660	1400-1680
7	540-630	720-840	660-770	570-665	660-770	1680-1960
8	630-720	840-960	770-880	665-760	770-880	1960-2240
9	720-830	960-1114	880-998	760-859	880-1007	2240-2534
10	>830	>1114	>998	>859	>1007	>2534

Iturria: Norberak egina

Finantza karga

Finantza karga aztertuz, esan dezakegu, udalak zorren amortizazio eta interesetan egindako gastuek, sarrera arruntekiko duten proportzioa adierazten dutela. Printzipioz, finantza karga baxuena dutenek, gastu finantzario eta ondorioz presio txikiagoa dutela esan daiteke. Hala ere, aurretik aipatu dugun bezala, finantza karga altua zorren amortizazio altuagatik bada, egoera ona ere izan daiteke, zorrak amortizatzen ari delako.

Ratio honekin ere, besteekin bezala, balio maximo, minimo eta batz bestekoak aztertuko ditugu:

Taula 21: Finantza kargaren balio maximo, minimo eta batz bestekoak


FINANTZA KARGA	2013	2012	2011	2010	2009	2008
Minimoa	%0,02	%0,01	%0,00	%0,00	%0,00	%0,00
Maximoa	%23,56	%51,64	%35,43	%47,74	%25,62	%39,19
Batz bestekoa	%9,00	%9,85	%9,32	%7,38	%7,55	%5,40

Iturria: Norberak egina

Finantza kargaren balio minimoak 0 inguruan dabilta urtero, hau da, urtero dago udalen bat gastu finantzarioetan egindako gastua nulua edo ia nulua izan dena, zorrik ez duten udalak ere baitira. Balio maximoek aztertuz, %20 eta %50 inguruan dabilta.

Esaterako, Baliarrainek 2012.urtean, %51,64ko finantza karga izan zuen, hau da, sarrera arruntetan lortutako euro bakoitzeko 0,51€ gastu finantzarioak (zorraren amortizazioak eta interesak) ordaintzera bideratu zituen. Gainontzeko urteak aztertuz, ikus daiteke, Baliarrainen finantza karga %10 inguruan ibili ohi dela, beraz, esan daiteke, 2012ko egoera salbuespena izan dela. Hori dela eta, doikuntza bat egingo dugu, eta 2012ko finantza karga 2013, 2011, 2010, 2009 eta 2008 urteetako batz bestekoa ezarriko dugu (%11,02 izango dena).

Grafiko 10: Baliarraineko finantza karga



Iturria: Norberak egina

Bestalde, aipagarria da Lizartzaren kasua ere. Urtero %10etik beherako finantza karga izan duen arren, 2010. urtean %47koa izan zuen. 2011. urterako, ordea, %10era jaistea lortu zuenez, momentu puntual bateko egoera soilik dela esan daiteke, eta ez duela udalaren egoerari buruzko informazio esanguratsurik ematen, hau da, egoera desitxuratzen du. Beraz, doikuntza egingo da 2010. urteko bere finantza kargan, gainontzeko urteetako batz bestekoa jarritz (%8,38).


Grafiko 11: Lizartzaren finantza karga



Iturria: Norberak eginda

Beste doikuntza bat aipatzearen, Adunaren kasua kontuan hartuz, 2013ko datuak ez ditugun arren, ikus daiteke 2009-2012 urteetan finantza karga %3-%6 inguruan dabilen arren, 2008an %40 ingurukoa zela. Honek bere puntuazioa desitxuratu dezakeenez, 2008ko finantza karga beste urteetako batz bestekoa izan dadin erabaki da, (%4,49).

Grafiko 12: Adunako finantza kargaren bilakaera



Iturria: Norberak egina

Doikuntzekin jarraitzeko, aipatu beharra dago ikaztegiaren kasua ere. Urtero finantza karga %5-%10 inguruan dabilen arren, 2011. Urtean ordaindutako zorren interes eta amortizazioak izugarri handitu eta finantza karga %35 izatera pasa ziren 2011.urtean. Beraz, udaletxearen benetako egoera lortu ahal izateko, hemen ere, 2011.urtean doikuntza bat egin eta batz besteko finantza karga ezarriko da (%9,39).

Grafiko 13: Ikaztegiaren finantza karga



Iturria: Norberak eginda

Ondorengo grafikoetan ikus daitekeen bezala, berdina gertatzen da Lazkaoren (2011.urtean) eta Orexaren (2012.urtea) kasuan ere. Hori dela, udaletxe hauen adierazletan ere doikuntza berdina egingo da.

Grafiko 14: Lazkaoko finantza kargaren bilakaera



Iturria: Norberak egina

Grafiko 15: Oresako finantza karga



Iturria: Norberak eginda.

Ondorioz, finantza kargari honako balorazioa esleitu zaio, finantza karga baxuenei kalifikazio onena emanaz eta altuenei kalifikazio txarragoa:

Taula 22: Finantza kargaren balorazioa, urtero

FINANTZA KARGA	BALORAZIOA
>%25	0
%22,5-%25	1
%20-%22,5	2
%17,5-%20	3
%15-%17,5	4
%12,5-%15	5
%10-%12,5	6
%7,5-%10	7
%5-%7,5	8
%2,5-%5	9
%0-%2,5	10

Iturria: Norberak egina

Zorpetze muga

Zorpetze mugak, enpresak zama finantzarioa ordaindu ondoren geratzen zaion aurrezki gordinaren zatia dela esan dugu aurrez. Beste modu batera esanda, udalari geratzen zaion autofinantzaketarako portzentajea adierazten du. Beraz, honen balioa ahalik eta handiena izan dadin saiatu beharko da. Gogoratu behar da, aurrezki gordin negatiboetan eta zama finantzarioa aurrezki gordina baino handiagoa denetan, zorpetze muga nulua kontsideratuko dela.

Taula 23: Zorpetze mugaren balio maximo, minimo eta bataz bestekoak

ZORPETZE MUGA	2013	2012	2011	2010	2009	2008
Minimoa	%0,00	%0,00	%0,00	%0,00	%0,00	%0,00
Maximoa	%99,93	%99,98	%100,00	%100,00	%100,00	%100,00
Bataz bestekoa	%53,06	%52,20	%29,30	%50,94	%33,72	%62,91

Iturria: Norberak egina

Ratio honi begirada bat joz, ikus daiteke bataz besteko autofinantzaketa maila %50 inguruan dabilela, hau da, badira udal batzuk autofinantzaketarik ez dutenak, eta beste batzuk, %100ekoa dutenak. Autofinantzaketarik ez duten udal hauen arrazoiak, aurrez azaldu dugun bezala, izan daiteke aurrezki arrunt gordin negatiboa dutelako edota zama finantzarioa aurrezki gordina baino handiagoa delako. Baloraketa egiteko, aukeratutako irizpidea honakoa izango da:

Taula 24: Zorpetze mugaren balorazioa

Kalifikazioa	Urtero
0	%0-%10
1	%10-%20
2	%20-%30
3	%30-%40
4	%40-%50
5	%50-%60
6	%60-%70
7	%70-%80
8	%80-%90
9	%90-%100
10	%100

Iturria: Norberak egina

Diruzaintza gerakina

Diruzaintza gerakina aztertzerako garaian, urte bakoitzean izan duen bilakaera aztertu beharko da, diruzaintza gerakina gutxitu edo “kontsumitu” duen edota diruzaintza gerakina handitu edo “sortu” duen alegia. Hau aztertzeko, beti ere datu erlatiboak kontuan izanik, aurreko urtetik izan duen bilakaerari buruzko informazioa ematen digun portzentajea kalkulatu da.

Gainera, udalaren diruzaintza gerakin absolutuak, zorrerikiko duen erlazioa ere aztertu da, hots, bere diruzaintza gerakina zorra baino handiagoa edo txikiagoa den edota zein proportzio suposatzen duten. Beste modu batera esanda, zor guztia ordaindu behar balu, nahikoa diruzaintza gerakin ote duen ala ez.

$$\text{Diruzaintza gerakina zor biziarekiko} = \frac{\text{Diruzaintza gerakina}}{\text{Zor bizia}}$$

Sakonki aztertu ondoren, ordea, ratio hau guztiz justua ez dela ondorioztatu dut. Izan ere, udalen batek zorrik ez badu eta diruzaintza gerakin eskasa baina positiboa badu, ratioaren balioa positiboa izango da. Aldiz, beste udal batek aurrez aipatutakoak baino diruzaintza gerakin handiagoa izan arren, zorrerikiko duen portzentajea txikiagoa izan daiteke, baina diruzaintza gerakinaren ikuspuntutik egoera hobea da bigarrena. Beraz, esan daiteke, ratio horrek diruzaintza gerakin handiagoa duten udalak zigortzen dituela.

Hori dela eta, diruzaintza gerakinak zor biziarekiko duen erlazioa aztertu ordez, biztanleko diruzaintza gerakin metatua baloratzea erabaki da.

Beraz, diruzaintza gerakinaren arloan, bi atal aztertu dira: alde batetik, diruzaintza gerakinak urte horretan izan duen bilakaera aurreko urtean zuen metatuarekiko; bestetik, udal horrek ekitaldi horretan duen diruzaintza gerakin metatua biztanleko.

Ondorengo tauletan laburbiltzen dira datu honi buruzko ezaugarri garrantzitsuenak: lehenengoan, diruzaintza gerakinak izan duen urtetik urterako bilakaerari buruzkoak, eta bigarrenengoan, diruzaintza gerakin metatua biztanleko zenbatekoari buruzkoak.

Taula 25: Diruzaintza gerakinaren bilakaera aurreko ekitaldiarekiko

DIRUZAINZTA GERAKINA (bilakaera)	2013	2012	2011	2010	2009	2008
Balio minimoa	%-123,76	%-136,31	%-1033023,36	-987,23%	-1959,17%	-898,41%
Balio maximoa	%9869,35	%30244,53	%528,57	6381,48%	1872,98%	21899,42%
Bataz bestekoa	%297,42	%656,91	%-11889	104%	16%	270%

Iturria: Norberak egina

Ikus daiteke, balio minimoen barnean, diruzaintza gerakinak jasotako beherakadarik handienak daudela islaturik. Esaterako, 2011.urtean, Mutrikuko udalak bere diruzaintza gerakina guztiz xahutu zuen. 20€-ko diruzaintza gerakina zuen 2010.urtean, eta 2011.urtean diruzaintza gerakin negatiboa izatera igaro zen, -26.088€takoa konkretuki. Bestalde, adibide gisa, 2011.urtean, Donostiako udalak

diruzaintza gerakina 31.420.094€-tan gutxitu zen. Egia da aurretik ere diruzaintza gerakin sendoa zuela, hiririk handiena bera baita eta normala delako berak izatea diruzaintza gerakinik handiena ere, baina jasan duen beherakada ere oso handia izan zen.

Taula 26: Biztanleko diruzaintza gerakinaren balio maximo, minimo eta batz bestekoak

DIRUZAINZTA GERAKINA BIZTANLEKO	2013	2012	2011	2010	2009	2008
Minimoa	-58,03	-61,32	-317,31	-299,74	-352,01	-849,84
Maximoa	3092,71	3941,24	4319,80	7442,73	5514,20	5533,25
Batz bestekoa	323,23	286,04	261,39	403,66	395,47	444,38

Iturria: Norberak egina

Balio minimoak aztertuz, ikus daiteke, badirela diruzaintza gerakin negatiboa duten udalak. Hauei, baloraziorik baxuena jarriko diegu, izan ere, egoerarik txarrena dela esan daiteke. Bestalde, balio maximoari erreparatuz, 2010.urtean, Baliarrainen egoera berezia aipatu behar da. Bere biztanleko diruzaintza gerakina 1.000€ eta 2.000€ inguruan dabilzan arren, 2010.urtean izugarritzko gorakada izan zuen, biztanleko 7.442,73€-tako diruzaintza gerakina izateraino. Horren arrazoia, superabitaren emaitza handia izana da. Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, 2010.urtean biztanleko azaltzen duen diruzaintza gerakina ez da Baliarrainen egoera errealia, eta, hori dela eta, doikuntza egingo zaio. Konkrétuki, 2010.urtean, gainontzeko urteetako batz bestekoa adieraziko da (1.487,16€).

Grafiko 16: Baliarraineko biztanleko diruzaintza gerakinak izan duen bilakaera



Iturria: Norberak eginda

Azkenik, diruzaintza gerakina ebaluatzeko garaian, honako irizpidea jarraituko da:

Taula 27: Diruzaintza gerakinaren bilakaeraren balorazioa

	2013	2012	2011	2010	2009	2008
0	≤%0	≤%0	≤%0	≤%0	≤%0	≤%0
1	%0 - %100	%0 - %100	%0 - %50	%0 - %100	%0 - %50	%0 - %80
2	%100 - %200	%80 - %160	%50 - %100	%100 - %200	%50 - %100	%80 - %160
3	%200 - %300	%160 - %240	%100 - %150	%200 - %300	%100 - %150	%160 - %240
4	%300 - %400	%240 - %320	%150 - %200	%300 - %400	%150 - %200	%240 - %320
5	%400 - %500	%320 - %400	%200 - %250	%400 - %500	%200 - %250	%320 - %400
6	%500 - %600	%400 - %480	%250 - %300	%500 - %600	%250 - %300	%400 - %480
7	%600 - %700	%480 - %560	%300 - %350	%600 - %700	%300 - %350	%480 - %560
8	%700 - %800	%560 - %640	%350 - %400	%700 - %800	%350 - %400	%560 - %640
9	%800 - %900	%640 - %720	%400 - %450	%800 - %900	%400 - %450	%640 - %720
10	>%900	>%720	>%450	>%900	>%450	>%720

Iturria: Norberak egina

Biztanleko diruzaintza gerakina baloratzeko garaian, 2013 eta 2012 urteetan, udalik gehienak biztanleko 0€ eta 330€ bitarteko diruzaintza gerakina dutela ikus daiteke. Hori dela eta, hasierako tarteak txikiagoak ezarri dira, hau da, tarte txikiagoak eta gehiago ezarri dira hasierako tarteetan, eta handienetan, udal kopurua askoz murriztagoa denez, tarte zabalagoak aplikatu dira. Horrela, udalik gehienez balorazio berdina ez esleitzea lortu da, izan ere, tarte guztiak berdinak izan balira, adibidez, 2013.urtean udalen %66ak puntu bat lortuko luke.

2011.urtean ere, antzeko zerbait gertatzen da, izan ere, zenbatekorik gehienak 0€ eta 880€ bitartean dabilta. Hori dela eta, 0 eta 1.000€ bitartean, tarte txikiagoak eta gehiago ezarri dira.

Gainontzeko urteetan, antzeko tarteak egin dira, hau da, ez tarte erregularrak, aurrez aipatutako irizpide jarraituz, udal gehiago daudelako biztanleko diruzaintza gerakina 100€ eta 400€ bitartean dutenak, adibidez 2010.urtean, 1.000€tik gorakoak baino.

Ondorengo taulan, zehaztasun osoz aztertu daiteke eman zaion balorazioa:

Taula 28: Biztanleko diruzaintza gerakinaren balorazioa

	2013	2012	2011	2010	2009	2008
0	<0	<0	< 0	< 0	<0	<0
1	0-100	0-100	0-100	0-100	0-100	0-100
2	100-200	100-200	100-200	100-200	100-200	100-200
3	200-300	200-300	200-300	200-300	200-300	200-300
4	300-400	300-400	300-400	300-400	300-400	300-400
5	400-500	400-500	400-500	400-500	400-500	400-500
6	500-750	500-750	500-750	500-750	500-750	500-750
7	750-1000	750-1000	750-1000	750-1000	750-1000	750-1000
8	1.000-1.500	1.000-1.500	1.000-2.000	1.000-4.000	1.000-4.000	1.000-4.000
9	1500-2.000	1500-2.000	2.000-3.000	4.000-5.000	4.000-5.000	4.000-5.000
10	>2.000	>2.000	>3.000	>5.000	>5.000	>5.000

Iturria: Norberak egina

Atal honetan azaldutako irizpideen arabera udaletxe guztien adierazleen zenbatekoak baloratu ondoren, Otik 10era, alegia, udaletxe bakoitzaren batz besteko puntuazioa kalkulatu da. Batz besteko puntuazio hau kalkulatzeko garaian, kontuan hartu da udaletxe batzuen kasuan, behin betiko daturik ez zegoela. Hori dela eta, batz besteko puntuazioa kalkulatzekoan, guztizko puntuazioa adierazle guztiekiko zatitu beharrean, lortutako adierazle kopuruarekiko egin da. Hau, Aduna, Altzo eta Anoetaren kasua da.

Adierazleen zenbatekoen kalkuluak, hala nola udaletxe bakoitzaren likidazioak, lan honen amaieran aurkitzen den eranskinetan aurki daitezke. Horretaz gain, lortutako puntuazioak eta ranking osoa ere eranskinetan barneraturik daude.

X. ONDORIOAK

Bilaketa bibliografikoa egin ostean, esango nuke, udalen kaudimenari buruzko ranking bakarrenetakoa Camara de Comptos-ek egindakoa izan dela, beraz, berau izan da nire erreferentzia nagusia. Hala ere, aipagarriak dira baita ere, Fitch, Standars&Poors eta antzeko erakundeek egiten dituzten balorazio lanak, baita Sielocalek argitaratzen dituen txostenak ere. Hainbat arloetan aurki daitezkeen arren rankingak, Gipuzkoaren kasuan, ez da udalen kaudimen finantzarioari buruzko rankingik argitaratu.

Gipuzkoako herrien azterketa burutu ondoren, esan daiteke, baita ere, batez ere herri txikiz osaturiko probintzia bat dela, ezaugarri horrek bere ondorioak izan ditzakeelarik.

Bestalde, aipatu beharra dago, Gipuzkoaren kasua berezia izan daitekeela kontabilitate publikoaren arloan, EAE-ren baitan dagoen probintzia delako. Espainiaren zati denez, Espainiako eta Europako arauak izango ditu, baina 1978ko Konstituzioan onartutako autonomia finantzarioari esker, autonomia erkidegoek hainbat eskumen lortu zituzten. Gipuzkoaren kasua, ordea, haratago doa, izan ere, EAE eta Nafarroak Estatuarekin duten harreman fiskal berezia dela eta, autonomia gehiago dute.

Herritarren informazio beharraren atalean, gizarteko gaur egungo joera nagusi bati buruzko azterketa burutu da. Egungo politikari eta bestelakoen ustelkeria kasuak gero eta gehiago diren bitartean, toki entitate eta erakunde publiko askok informazio gardentasunaren aldeko apustua egin baitute, kontu publikoei buruzko datuak eta informazioa herritarren esku utziz. Estatu mailan, autonomia erkidego eta probintzia mailan eta udal mailan martxa dauden gardentasunaren arloko atariak eta proiektuak aipatu dira. Iniziatibaren oinarria oso positibo den arren, oraindik ere, hainbat hutsune izan ditzake. Gainera, Espainiaren kasuan, udaletxeek ez dute beraien datuei buruzko adierazleak argitaratzeko derrigortasunik, esaterako, Erresuma Batuan egin zenaren bezala. Arlo honetan, oraindik lan asko egiteko dagoen arren, lehen pausoak eman direla esango nuke.

Udaletxeen kaudimen finantzarioa neurtzeko, hainbat adierazle eta ratio daude eta batzuk besteak baino egokiagoak izan daitezke udaletxeen kaudimena neurtzeko. Aurrezki arrunt gordinak eta garbiak, esaterako, udalaren jarduera arruntaren eraginkortasuna neurtzen dute, hau da, ea bere ohiko sarrerekin ohiko gastuak finantzatzeko gaitasunik duten. Aurrezki gordinak finantza gastuak barnean hartzen ez dituen bitartean, aurrezki garbiak kontuan hartzen ditu. Bi adierazle hauek udalaren kaudimena neurtzeko egokiak dira izan ere, modu iraunkor batean ohiko jarduera finantzatzeko gaitasunik ez duen udaletxea, kaudimen arazo larrian egon daitekeela adierazi nahi du.

Bestalde, aurrezki gordin edo garbi esanguratsuak lortzen dituen udalak, inbertsioak egiteko edota diruzaintza gerakina osatzeko ahalmena duela erakusten du, eta kaudimena arazoak izateko probabilitatea askoz txikiagoa izango da. Datuak aztertuz, orokorrean, oso udaletxe gutxi izan dira aurrezki gordin negatiboa izan dutenak (2012.urtean Orendain, 2011.urtean 9 udal, 2010.urtean 4 udal, 2009.an 15 udal eta 2008.an, berriz, udal bakarra). Aurrezki garbiarekin, ordea, aipatu behar dira 2009 eta 2011.urteak, izan ere, urte horietan, 37 udal izan ziren aurrezki garbi negatiboa izan zutenak, Gipuzkoako %42a.

Zorrari dagokionez, honek ere garrantzia handia duela esan daiteke, izan ere, udal baten zor mailak bere gastuen egituran eragin handia du. Hau aztertzeko biztanleko zorra eta zorraren itzultze epea kalkulatu dira. Biztanleko zorra, urtero batuz beste 400€ eta 500€ bitartean ibili ohi izan da. Zor handia duten udaletxeak oraindik badiren arren, zorra murrizteko joera izan da nagusi azken urteetan. Hori garbi ikus daiteke, esaterako, batuz besteko zorraren itzultze epeak izan duen bilakaeran.

Superabit edo defizitari dagokionez, udalen aurrekontu orekari buruzko informazioa ematen digute. 2013.urtean 8 udaletzek soilik itxi bazuten ekitaldia defizitarekin ere, beste urteetan 50 udal inguru izan dira defizita izan dutenak. Defizita duten udalen kopuruak, beraz, beheranzko joera izan du.

Finantza karga, hau da, zorren interes eta amortizazioek sarrera arruntekiko suposatzen duten portzentajea, udaletxe horrek zorrerikiko dute "presioa" adierazten du, zenbateko pisua duen zorraren ordainketak, alegia. Orokorrean, udaletxeek ez dute %25eko finantza karga baino handiagoa izan, salbuespen bat izan ezik (Urretxu 2009).

Zorpetze mugari dagokionez, denetarik aurki daiteke Gipuzkoan. Batuz beste, %50 inguruko autofinantzaketa maila izan da Gipuzkoan. Batuz bestek ordainketa eta kobru epeak ere interesgarriak izan daitezke udalen beharrezkoa den informazioa lortzeko dauden zailtasunak direla eta, ezin izan da rankingen barneratu.

Azkenik, diruzaintza gerakinak, dudarik gabe, udaletxeak duen "aurrezki" edo "itsulapikoa" denez, berauen kaudimena neurtzeko adierazle garrantzitsutzat jotzen da. Ez dago dudarik, diruzaintza gerakin potoloa duten udaletxeek beraien ordainketei aurre egiteko izan ditzaketen arazoak ez direla horrenbestekoak izango. Honek zor biziarekiko erlazio estua izan dezake. Diruzaintza gerakin maila egokia izateak, udalaren kaudimena bermatzen du, adibidez, egunen batean zor guztia itzuli beharra suertatuz gero, ahalmenik izango luken jakin baitaiteke.

Hurrengo taulan, ikus daitezke, urtez urte udal bakoitzak lortutako puntuazioak eta batuz bestekoak. Puntuazioak, urte bakoitzekoak, 90 puntutik izango lirateke, 9 adierazle baitira. Altzo eta Anoetaren kasuan, datu guztiak ez geneuzkanez, 6rekin zatitu beharrean, proportzioa kalkulatu eta zati 5,1111 egin da batuz bestekoa kalkulatzeko, eta Adunaren kasuan 4,88rekin. Udal guztien puntuazioak eranskinetan ikus daitezke.

Taula 29: Herri bakoitzaren puntuazioa urtez urte

	2013	2012	2011	2010	2009	2008	BATAZ BESTE
1 Abaltzisketa	48	45	39	41	45	48	44,33
2 Aduna	3	39	17	35	46	60	40,91
3 Aizarnazabal	51	30	32	28	31	37	34,83
4 Albiztur	45	41	19	37	33	45	36,67
5 Alegia	43	41	36	37	44	50	41,83
6 Alkiza	50	41	34	41	57	44	44,50
7 Altzo	10	51	48	53	52	68	55,17
8 Amezqueta	41	37	33	41	39	45	39,33
9 Andoain	28	23	24	31	21	24	25,17
10 Anoeta	3	31	35	28	7	11	22,50
11 Antzuola	22	27	30	31	20	31	26,83
12 Arama	64	58	60	62	55	64	60,50
13 Aretxabaleta	35	23	32	38	26	48	33,67
14 Asteasu	32	35	23	28	46	44	34,67
15 Ataun	43	38	32	39	44	60	42,67
16 Aia	51	53	45	44	45	42	46,67
17 Azkoitia	31	29	20	22	20	31	25,50
18 Azpeitia	47	41	38	42	38	45	41,83
19 Beasain	48	41	39	41	36	47	42,00
20 Beizama	46	54	21	30	22	50	37,17
21 Belauntza	37	39	29	37	40	48	38,33
22 Berastegi	43	30	15	43	45	55	38,50
23 Berrobi	40	32	8	14	32	33	26,50
24 Bidania-Goiatz	33	31	20	29	17	33	27,17
25 Zegama	32	40	35	40	38	41	37,67
26 Zerain	34	21	49	30	18	18	28,33
27 Zestoa	43	39	31	38	34	32	36,17
28 Zizurkil	16	15	19	17	14	27	18,00
29 Deba	34	24	23	29	26	40	29,33
30 Eibar	47	39	36	42	32	42	39,67
31 Elduain	49	41	17	20	52	51	38,33
32 Elgoibar	45	44	41	36	21	39	37,67
33 Elgeta	22	34	32	34	16	30	28,00
34 Eskoriatza	38	40	34	43	34	38	37,83
35 Ezkio-Itsaso	66	57	72	43	29	49	52,67
36 Hondarribia	60	55	54	54	54	55	55,33
37 Gaintza	43	44	23	25	10	29	29,00
38 Gabiria	30	34	19	26	24	30	27,17
39 Getaria	31	18	25	38	11	20	23,83
40 Hernani	38	50	33	37	33	44	39,17
41 Hernialde	56	57	33	36	38	47	44,50
42 Ibarra	35	49	30	29	18	42	33,83
43 Idiazabal	40	41	34	39	43	49	41,00

44	Ikaztegieta	32	32	30	37	41	24	32,67
45	Irun	36	35	26	32	16	32	29,50
46	Irura	48	55	30	36	47	46	43,67
47	Itsasondo	44	40	39	38	42	48	41,83
48	Larraul	35	34	22	29	16	32	28,00
49	Lazkao	53	51	33	43	38	57	45,83
50	Leaburu	39	43	19	28	23	43	32,50
51	Legazpi	40	41	33	21	37	44	36,00
52	Legorreta	55	34	33	38	25	33	36,33
53	Lezo	51	41	21	32	38	22	34,17
54	Lizartza	24	44	15	19	26	36	27,33
55	Arrasate	39	35	33	41	36	38	37,00
56	Mutriku	21	28	18	20	6	23	19,33
57	Mutiloa	32	38	38	47	69	60	47,33
58	Olaberría	52	66	62	40	35	46	50,17
59	Oñati	46	34	50	40	38	46	42,33
60	Orexa	53	37	31	33	19	57	38,33
61	Orio	38	42	38	29	56	48	41,83
62	Ormaiztegi	43	51	36	36	41	37	40,67
63	Oiartzun	36	36	23	32	22	24	28,83
64	Pasaia	25	34	17	46	16	31	28,17
65	Soraluze	28	38	20	21	25	22	25,67
66	Errezil	24	25	17	23	17	20	21,00
67	Errenteria	30	28	24	35	35	31	30,50
68	Leintz-Gatzaga	47	45	53	44	35	54	46,33
69	Donostia	21	29	21	36	24	33	27,33
70	Segura	22	13	29	36	42	38	30,00
71	Tolosa	38	37	39	36	33	45	38,00
72	Urnieta	49	49	43	53	44	42	46,67
73	Usurbil	32	34	26	38	36	43	34,83
74	Bergara	44	43	24	30	25	29	32,50
75	Villabona	34	40	29	37	24	34	33,00
76	Ordizia	30	36	33	40	24	40	33,83
77	Urretxu	30	34	27	27	20	46	30,67
78	Zaldibia	34	35	28	35	39	39	35,00
79	Zarautz	33	36	43	36	13	34	32,50
80	Zumarraga	37	40	36	39	30	31	35,50
81	Zumaia	39	43	42	44	43	47	43,00
82	Mendaro	45	39	39	41	29	35	38,00
83	Lasarte-Oria	36	35	25	40	38	28	33,67
84	Astigarraga	40	45	34	53	16	36	37,33
85	Baliarrain	67	38	41	58	42	45	48,50
86	Orendain	20	18	15	46	54	35	31,33
87	Altzaga	67	33	24	42	33	48	41,17
88	Gaztelu	20	18	16	29	5	23	18,50

Iturria: Norberak eginda

Aurreko taulari esker, nabarmen da, nolakoa izan den udal bakoitzaren bilakaera urtez urte. Udaletxe batzuek puntuazioetan izan duten bilakaera nahiko homogenea izan den bitartean (esaterako, Zegamaren kasuan), beste batzuen askoz heterogeneoagoa izan da, hots, urtero lortzen dituzten puntuazioen arteko ezberdintasuna handiagoa da (beste hitz batzuetan, batz bestekotik gehiago urruntzen direla). Batz besteko zenbatekoei erreparatuz, ikus daiteke, udaletxe asko daudela batz beste 25 eta 35 puntu bitartean eskuratu dituztenak.

Hurrengo taulan, berriz, lehenengo eta azkeneko 5 postuetan dauden udaletxeei buruzko analisi bat egingo da. Bertan, 2013 eta 2012 urteetan, udal batzuen daturik ez genez, hauek ez dira kontuan hartuko.

Taula 30: Lehenengo 5 postuetako udaletxeak urtez urte

POSTUA →	1	2	3	4	5
2013	Baliarrain	Altzaga	Ezkio-Itsaso	Arama	Hondarribia
2012	Olaberria	Arama	Ezkio-Itsaso	Hernalde	Hondarribia
2011	Ezkio Itsaso	Olaberria	Arama	Hondarribia	Leintz Gatzaga
2010	Arama	Baliarrain	Hondarribia	Astigarraga	Urnieta
2009	Mutiloa	Alkiza	Orio	Arama	Hondarribia
2008	Altzo	Arama	Ataun	Aduna	Mutiloa

Iturria: Norberak eginda

▪ **Puntuazio berdina dutenak**

Herriz herri aztertzen hasten bagara, Baliarrainen kasuan, 2013.urtean, puntuaziorik altuena lortu zuen, eta 2010.urtean berriz kaudimenik gehienetakoa zuen 3.postuan zegoen.

Aramako udala, urte guztietan aurki daiteke lehen 5 postuetan, beraz, bere egoera kaudimenduna etengabekoa dela esan daiteke. Hondarribiak ere, ia urtero lortu du lehenengo 5 postuetan aurkitzea. Horrek, noski, amaierako rankingean ere isla du, bigarren postua lortu baitu Hondarribiak.

Altzagak, 2013.urtean lortu du lehenengoz aurreneko 5 postuetan sailkatzea eta Ezkio Itsasok, berriz, 2011z geroztik. Olaberriaren kasuan, 2012 eta 2011 urteetan oso postu onak lortu zituen, baina gainontzeko azterketa urteetan ez du lehen 5 postuetan sailkatzerik lortu. Berdina gertatzen da Altzo edo Ataunen kasuan, izan ere, 2008.urtean lehenengo 3 postuetan sailkatzea lortu zuten arren, gehiago ezin izan dute lortu, beraz, beraien egoera okertzen joan dela ondorioztatu daiteke.

Kolore morez adierazita dauden herriak, puntuazio berdina dute, beraz, guztiek postu berdina izango lukete.

Taula 31: Azkeneko 5 postuetako udaletxeak urtez urte

POSTUA →	88	87	86	85	84
2013	Altzo	Zizurkil	Orendain	Gaztelu	Donostia
2012	Segura	Zizurkil	Getaria	Orendain	Gaztelu
2011	Berrobi	Berastegi	Lizartza	Orendain	Gaztelu
2010	Berrobi	Zizurkil	Lizartza	Mutriku	Elduain
2009	Gaztelu	Mutriku	Anoeta	Gaintza	Getaria
2008	Anoeta	Zerain	Getaria	Errezil	Soraluze

Iturria: Norberak eginda

Azkeneko 5 postuetako udalei dagokionez, aipagarria da Berrobik 2 aldiz lortu duela azken postua (2010, 2011). Hala ere, esan beharra dago, 2011z geroztik ez dela azken 5 postuetan kokatu, hots, pixkanaka bere kaudimena hobetzen joan dela esan daiteke. Zizurkilen egoera ere, ez da hobea, izan ere, 3 urteetan azken bigarrenengo postua lortu du.

Azpimarratu nahi nuke, Donostiak 2013.urtean 84.postua lortu zuela, nahiko postu desegokia izanik. Bestalde, Gaztelu ere ia urtero aurki daiteke azkeneko 5 postuetan.

Anoeta eta Errezileko udalak dira, 2008-2013 bitartean azkeneko postuetan behin bakarrik egon direnak, Donostiarekin batera.

Orokorrean, azken 5 postuetako udalak errepikatu egiten dira, Orendainen edota Gazteluren kasuan, adibidez. Horren esan nahi du, kaudimen txikiena duten udalek, bere egoera hobetzeko zailtasunak dituztela, nahiz eta udal batzuk azken 5 postuetatik irtetea lortu duten, orokorki, urtez urte errepikatzen baitira udalak.

Hala eta guztiz ere, badira salbuespenak, esaterako, Anoeta, Zerain edota Soraluzeko udalek, lortu baitute azken 5 postuetako sailkapenetik at geratzea. Hauek, seguruenik, beraien gestioa eta aurrekontuen exekuzioa hobetuko zuten, kaudimen egoera hobek lortuz.

Azkenik, analisia amaitzeko, hurrengo taulan, biztanleria taldeen arabera sailkatuko dira udalak, eta urtez urte, talde bakoitzak lortutako batz besteko puntuazioak aztertuko dira.

Taula 32: Biztanleria tarteen araberako puntuazioak

Biztanleria	Udal kopurua	2013		2012		2011		2010		2009		2008	
		Guztira	Bataz beste	Guztira	Bataz beste	Guztira	Bataz beste	Guztira	Bataz beste	Guztira	Bataz beste	Guztira	Bataz beste
0 - 1.000	32	1302	40,68	1263	39,46	995	31,09	1141	35,65	1097	34,28	1370	42,81
1.000-5.000	22	769	34,95	796	36,18	671	30,50	771	35,04	707	32,13	822	37,36
5.000-10.000	15	562	37,46	567	37,80	455	30,33	536	35,73	456	30,40	594	39,60
10.000-20.000	13	523	40,23	506	38,92	440	33,84	494	38	403	31	495	38,07
20.000-100.000	5	185	37	173	34,60	162	32,40	186	37,20	132	26,40	177	35,40
>100.000	1	21	21	29	29	21	21	36	36	24	24	33	33


Iturria: Norberak eginda

Taula 33: Biztanleria tarteen araberako bataz besteko puntuazioak

Biztanleria	Urte guztietako bataz bestekoa
0 - 1.000	37,32
1.000-5.000	34,36
5.000-10.000	35,22
10.000-20.000	36,67
20.000-100.000	33,83
>100.000	27,33

Iturria: Norberak egina

Grafiko 17: Biztanleri mailen arabera jasotako bataz besteko puntuazioak



Iturria: Norberak egina

Taula horietan, ikus daitezke, alde batetik, biztanleria tarte bakoitzean dauden udalek, guztira, urte bakoitzean lortutako puntuazioak, eta beraien alboan, udal kopuruarekin zatitu ondoren, udal bakoitzaren batz besteko puntuazioa. Bigarren taulan, berriz, urte guztien batz bestekoa kalkulatu da, eta horrela, ikus dezakegu zein tamainatako herriek lortu duten, batz beste puntuazio altuena.

Nabarmena da, udalik gehienak txikiak direla, aurreko atalen batean aipatu dudan bezala, 1.000 biztanletik beherako udalak 32 baitira. 100.000 biztanletik gorakoa bakarra dugu, Donostia hiriburua delarik.

Bestalde, batz besteko puntuaziorik altuena ere herri txikiek eskuratu dutela esan daiteke, hau da, biztanle gutxikoek (1.000 biztanletik behera). Ondoren, antzeko batz bestekoarekin, baina baxuagoa, 10.000 eta 20.000 biztanle tarteko herriak daude, 5.000 eta 10.000 biztanle bitartekoek jarraitzen diotelarik. Azken hauen atzetik, 1.000 eta 5.000 biztanle bitarteko herriak leudeke. Azken bi postuetan, herri handiak kokatzen dira, hau da, 20.000 biztanletik gorakoak.

Taula horretako datuak aztertuz, ondorioztatu daiteke, beraz, ez dagoela herrien tamainaren arabera lortuko duten puntuazioa, izan ere, estratu guztiek jaso dituzten batz besteko puntuazioak oso antzekoak izan dira, nahiz eta Donostiarena zerbait baxuagoa izan (alde batetik, udal bakarra denez, normala da, ez delako udal gehiagorekin egin batz bestekoa). Nahiz eta batz besteko puntuaziorik altuena herri txikienean lortu duten, ez dut uste bi aldagaien artean menpeko erlaziorik dagoenik.

Lana amaitu ondoren, aipatu beharra dago, lan honetan, adierazle eta ratio guztiei garrantzi bera eman zaiela. Errealitatean, hau ez litzateke guztiz zuzena izango, adierazle guztiak ez direlako garrantzi berekoak udaletxeen kaudimena neurtzeko garaian. Beraz, adierazle eta ratioen ponderazio bat eginez gero, rankinga zehatzagoa eta zuzenagoa izango litzatekeen arren, ez da gradu bukaerako lan honetan barneratu. Hori dela eta, rankingeko postuak orientagarriak direla esan daiteke, eta lan honetan azaldutako irizpideak jarraituz burutu dela. Irizpide hauek ezberdinak izan balira, emaitza ere zerbait aldatuko litzateke, hautatutako irizpideen menpe baitago rankingaren amaierako emaitza.

Bestalde, rankinga egiteko garaian, 2008 eta 2013 urte bitarteko batz besteko egoera islatu da, beraz, urteren batean postu hobea izango lukeen arren, batz beste denbora tarte horretan postu hori izan duela nabarmendu behar da.

Gainera, analisi tarte 2008-2013 izanik, baliteke ranking honek gaur egungo egoera %100ean ez islatzea, 2014ko likidazioak lortzeko zailtasunak medio. Rankingean 2014.urtea barneratu ahal izan bagenu, rankingaren emaitza ezberdina izango litzateke.

Honelako ranking bat burutzeak, udaletxeen egoera ekonomiko - finantzarioa hobetzeko laguntza eskaini dezake, izan ere, posturik onena lortu duten udaletxeek hori nola lortu duten aztertu daiteke. Hau da, egoerarik onena duten udalek, beraien adierazleen analisi bat burutu eta bere gestio edota politikak aztertuz, beste udaletxeetan aplikatu eta hobekuntza edo gomendioak egin daitezke. Lan honetan, ez da landu posturik onenetan eta kaskarrenetan dauden udalen egoera zehatza zein den.

XI. BIBLIOGRAFIA

AIS Group, & ESRI. *La deuda de los ayuntamientos españoles sobre el mapa*.

Álvarez García, S. (2010). *Diccionario de economía pública*. 28015 Madrid: Ecobook -Editorial del economista.

Asociación Española de Contabilidad y Administración de Empresas. (2001). *Marco conceptual para la información financiera de las administraciones públicas. Documentos*. (pp. 11-33)

Asociación Española de Contabilidad y Administración de Empresas.

Atlasa. Hemendik eskuratua: <http://atlasa.net/>

Atlasa. *Euskal herriko udalen zor bizia 2012. rankinga: Udalerrri tamainaren arabera*. Hemendik eskuratua: <http://atlasa.net/?q=eu/node/82>

Autoridad Bancaria Europea. (2014/10/26) , *EBA publishes 2014 EU-wide stress test results*.

Hemendik eskurata: <http://www.eba.europa.eu/-/eba-publishes-2014-eu-wide-stress-test-results>

Azpeitiko Udala. Kontuak garbi. Hemendik eskuratua: <http://azpeitia.kontuakgarbi.com/>

Azpeitiko Udala. Open data. Hemendik eskuratua:

<http://opendataazpeitia.gobernuirekia.net/eu>

BCE (2009/05). *Agencias de calificación crediticia: Evolución y cuestiones de política*, 119-129.

Benito López, B. (1995). Manual de contabilidad pública. *Economía y administración de empresas* (pp. 76-99) Pirámide.

Bizkaiko Foru Aldundia. (2015). *Eudelek eta aldundiak Europako kontseiluarekin lan egingo dute tokiko finantzak hobetzeko adierazleen proiektu batean*. Hemendik eskuratua:

[http://www.bizkaia.eus/home2/bizkaimedia/Contenido_Noticia.asp?Not_Codigo=14760
&idioma=EU&dpto_biz=7&codpath_biz=7](http://www.bizkaia.eus/home2/bizkaimedia/Contenido_Noticia.asp?Not_Codigo=14760&idioma=EU&dpto_biz=7&codpath_biz=7)

Boal Velasco, N. *Solvencia. Expansión*

Ley 71/1985, de 2 de abril, reguladora de las bases del régimen local, 25.art.

Konstituzio Espainiarra 135.art., nº 311 (1978/12/29).

Ley orgánica 8/1980, de 22 de septiembre, de financiación de las comunidades autónomas,
(1980).

Ley 12/2002, de 23 de mayo, por la que se aprueba el concierto económico con la comunidad
autónoma del país vasco., (2002).

Ley orgánica 13/1982 de reintegración y mejoramiento del régimen foral de navarra, 1.art.
1982,

Calderón, I. (2015/05/08). *Los datos que querría conocer antes de votar y no podrá... porque el
gobierno no quiere. .*

Clemente, Y. (2015/01/03). *Los gigantes de la economía mundial. El País*

Resolución del consejo europeo de Ámsterdam sobre el pacto de estabilidad y crecimiento,
(2005/11/14).

Deloitte (2014). *Global powers of retailing 2014.*

Dodero Jordán, A. (2001). Marco competencial del sector público en España. *Teoría y práctica
de la contabilidad presupuestaria en el sector público :(especial referencia a las
entidades locales)* (pp. 73-84) Comares.

Dodero Jordán, A. (2001). Teoría y práctica de la contabilidad presupuestaria en el sector público :(especial referencia a las entidades locales). *Biblioteca comares de ciencia jurídica. estudios de administración local* (pp. 295-304) Comares.

EAE Business School. (2014/04/28). *La deuda pública por habitante en España asciende a 20.783€, un %4 más que en 2012* .

EHU/UPV. (2010/06/18). *Aurrekontua eta kontabilitatea UPV/EHU-n*.

Erkizia, A. (2013). *Zenbait aurrekontu kontzeptuen azterketa*. Argitaratu gabeko idatzia.

Ermuako Udala. Transparencia municipal. Hemendik eskuratua:

http://www.ermua.es/pags/ayuntamiento/ca_transparencia_municipal.asp

Eusko Jaurlaritzza. Gobernu irekia. Hemendik eskuratua:

<http://www.irekia.euskadi.eus/eu/pages/2902-los-tres-pilares-irekia>

Ekonomia ituna, (2008).

Euskal herriko autonomia estatutua.

Farfán Pérez, J. M., & Velasco Zapata, A. (2009). Guía práctica para la planificación presupuestaria de las entidades locales: Diagnóstico económico-financiero y planes de saneamiento. *Asesor*. (pp. 60-62) Aranzadi Thomson Reuters.

Farfán Pérez, J. M., & Velasco Zapata, A. (2009). Guía práctica para la planificación presupuestaria de las entidades locales: Diagnóstico económico-financiero y planes de saneamiento. *Asesor*. (pp. 102-105) Aranzadi Thomson Reuters.

Fitch Ratings. Sektore publikoa. Hemendik eskuratua:

<https://www.fitchratings.com/gws/en/sector/entity/internationalPublicFinance>

Fitch Ratings. (2014/12) *Definitions of ratings and other forms of opinion p.15.*

Fitch Ratings. (2014/12) *Definitions of ratings and other forms of opinion p.18.*

Fitch Ratings. (2014/12). *Definitions of ratings and other forms of opinion p.20.*

Foro de Estabilidad Financiera. (2008/04/07). *Report of the financial stability forum on enhancing market and institutional resilience.*

Foro de Estabilidad Financiera. (2008/04/07) *Report of the financial stability forum on enhancing market and institutional resilience.*

Gayubo Pérez, P. (2000). *El remanente de tesorería: Una medida del superávit o déficit de las haciendas locales.*

Gaztelumendi, X. (2005/10). *Udalen azterketa adierazleen bitartez. Udalgida Aldizkaria*, 13-26.

Gerència de Serveis de Promoció Econòmica i Ocupació, Diputació de Barcelona. *Sistema de informació socioeconómica local*. Hemendik eskuratua:

<http://www.diba.cat/hg2/default.asp?idioma=es>

Gestión Integral de Ayuntamientos (GIA). (2015). *Remanente de tesorería*. Hemendik

eskuratua: <http://gia.clmtec.es/gia/images/stories/manuales/CONTABILIDAD8.pdf>

Gipuzkoako Batzar Nagusiak. *Las comarcas guipuzcoanas*. Hemendik eskuratua:

http://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DJGPortalWEB/territorio_historico_de_gipuzkoa.jsp?id=05&idioma=es

Azaroaren 15ko 15/1994 FORU ARAUA, udal finantzaketarako foru fondoa arautzen duena,

21/2003 foru araua abenduaren 19koa, Gipuzkoako lurralde historikoko toki erakundeen aurrekontuei buruzkoa, 19.art, (2003).

21/2003 foru araua abenduaren 19koa, Gipuzkoako lurralde historikoko toki erakundeen aurrekontuei buruzkoa, 23.art., (2003).

21/2003 foru araua abenduaren 19koa, Gipuzkoako lurralde historikoko toki erakundeen aurrekontuei buruzkoa, 24.art., (2003).

21/2003 foru araua abenduaren 19koa, Gipuzkoako lurralde historikoko toki erakundeen aurrekontuei buruzkoa, 28.art., (2003).

21/2003 foru araua abenduaren 19koa, Gipuzkoako lurralde historikoko toki erakundeen aurrekontuei buruzkoa, 31.art., (2003).

21/2003 foru araua abenduaren 19koa, Gipuzkoako lurralde historikoko toki erakundeen aurrekontuei buruzkoa, 32.art., (2003).

21/2003 foru araua abenduaren 19koa, Gipuzkoako lurralde historikoko toki erakundeen aurrekontuei buruzkoa, 33.art., (2003).

21/2003 foru araua abenduaren 19koa, Gipuzkoako lurralde historikoko toki erakundeen aurrekontuei buruzkoa, 34.art., (2003).

21/2003 foru araua abenduaren 19koa, Gipuzkoako lurralde historikoko toki erakundeen aurrekontuei buruzkoa, 5.3.art, (2003).

Norma foral 2/2003 de 17 de marzo, reguladora de las demarcaciones municipales de Gipuzkoa 3.art. (2003).

Norma foral 2/2003 de 17 de marzo, reguladora de las demarcaciones municipales de Gipuzkoa 4.art., (2003).

Gipuzkoako Foru Aldundia. (2003). *Sistema de objetivos e indicadores municipales*. (pp. 11-15)
Gipuzkoako Foru Aldundia, Ogasun eta Finantza Departamentua = Diputación Foral de Gipuzkoa, Departamento de Hacienda y Finanzas.

3/2015 FORU DEKRETUA, urtarrilaren 27koa, Deba-ko udalerrian Itziarko toki entitate txikia eratzekoa, (2015).

Gipuzkoako Foru Aldundia. (2015). *Udalgida*. Hemendik eskuratua:

http://www2.gipuzkoa.net/wps/portal!/ut/p/b1/04_Sj9Q1MzMztzCyMLTQj9CPykssy0xPLMnMz0vMAfGjzOIN_YxcHZ0MHQ0sgrycDTxdQ7ycQz2dDMyNDYEKIoEKDHAARwNC-oNTS-Ndg_XD9aPwqgwXlqDAwxCqAI9T_Dzyc1P1c6NyLIi9dR0BM5QXdg!!/dl4/d5/L0IJSkKSUpKZ0EhIS9JTmpBQUF4QUFFU29BQ0ltWWchIS80SmtHUW9RdHV5RWQtVVIRL1o2XzFOMkVBQjFBMDhSSkMwSUVUSkNVSUIwRjA0L1o3XzFOMkVBQjFBMEdETUYwSVVQTTFGSTYwQ082LzA!/?idOpcionMenu=99&contenido=

Gipuzkoako Foru Aldundia. (2015). *Udalgida, adierazleak eta estatistikak*. Hemendik eskuratua:

http://www2.gipuzkoa.net/wps/portal!/ut/p/b1/hZHNjoJAEISfxQcw0yCB2SO_CsggzgwLXAgLBkWQNYuCPP1iYrKnxb50OvmqKpVGcYqXlmbZwRjefaAIJZfsiqz7tResvp5J3lqENFUNUEFvHd0sE3m6NzWwAJpAuIJgH9GhTm9shJe-hngTT493FKTok-UzCYx8Q2wEV7AXJVZB01GZNM2BxRPmPKHrQ3PApvpPMGyZdB9GTEUgZTS6vHtj7wm7EfxRqnbSDPgsBzfH-eRV2lgF71AaD44lwxOsYk9CPKrC0dvxMO2MPuby1cexBg09VzX-ziqr1mjOpEiH4ps7ee66hdGn7UL5KCKrNuv6Z3hIbtUuG9d2vS8CgOSly3Dwo49-tvIO07yXlpF0776a1L5XFLUzEvzNBS3bM2GHYBmqS2MLUrKVvGv9TjvcY!/dl4/d5/L0IJSkKSUpKZ0EhIS9JTmpBQUF4QUFFU29BQ0ltWWchIS80SmtHUW9RdHV5RWQtVVIRL1o2XzF

[OMkVBQjFBMDhSSkMwSUVUSkNVSUIwN0I2L1o3XzFOMkVBQjFBMEc1VEEwSVVEUEZO
MTFKMEs1LzA!/?idOpcionMenu=1.2.1&contenido=%2Fhweogasunaaulbr%2Fogasuna%
2Fhweudalgida-070sta%2Fhweinformaciongeneral-070-
010sta%2Fhweindicadoresestadisticas-070-010-010sta%2Fcf832cca-643f-4a10-997f-
c66fc81883f6](http://OMkVBQjFBMDhSSkMwSUVUSkNVSUIwN0I2L1o3XzFOMkVBQjFBMEc1VEEwSVVEUEZO
MTFKMEs1LzA!/?idOpcionMenu=1.2.1&contenido=%2Fhweogasunaaulbr%2Fogasuna%
2Fhweudalgida-070sta%2Fhweinformaciongeneral-070-
010sta%2Fhweindicadoresestadisticas-070-010-010sta%2Fcf832cca-643f-4a10-997f-
c66fc81883f6)

Gobierno de España. *Portal de la transparencia*. Hemendik eskuratua:

http://transparencia.gob.es/es_ES/

Grupo Aseguranza. (2015). Estudios y rankings de seguros. Ranking total grupos aseguradores

2013. Hemendik eskuratua: <http://www.grupoaseguranza.com/frontend/ga/Estudios-Y-Rankings-De-Seguros-vs361-in16>

Ibarloza Arrizabalaga, A., Erkizia Olaizola, A., & Ibarloza Arrizabalaga, E. (2014). *La situación financiera de los ayuntamientos en los territorios históricos: El caso de Gipuzkoa*. *Revista Vasca De Administración Pública. Herri-Arduralaritzako Euskal Aldizkaria*, (99), 72-1677-1699.

IGAE. (2007). *Indicadores de gestión en el ámbito del sector público*. (pp. 22-71) Ministerio de Economía y Hacienda.

Ine. Hemendik eskuratua: <http://www.ine.es/>

Instituto Vasco de Administración Pública, & País Vasco. (2014). *Modelo de gestión pública avanzada del gobierno vasco* Instituto Vasco de Administración Pública = Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea.

Instituto Vasco de Administración Pública, & País Vasco. (2014). *Modelo de gestión pública avanzada del gobierno vasco* Instituto Vasco de Administración Pública = Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea.

IOSCO.(2003/09/25) *IOSCO statement of principles regarding the activities of credit rating agencies. A statement of the technical committee of the international organization of securities commissions.*

Ley 13/1996, de 30 de diciembre, de medidas fiscales, administrativas y del orden social, (1996).

Jesus Sérvulo Gonzalez. (2014, 2014/05/25). *Ciudades ahogadas por la deuda. El País*

Konstituzio Espainiarra. *Disposición adicional primera.*

Konstituzio Espainiarra 148.art. (1978).

Konstituzio Espainiarra 149.art. (1978).

Konstituzio Espainiarra 156.1. art. (1978).

Ley orgánica 2/2012, de 27 de abril, de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera, (2012).

Mabras, J. (2011). El análisis de estados financieros en el sector público: El caso de los ayuntamientos. *Revista De Contabilidad y Dirección*, 13, 43-60.

MacFredies, P. (2007). *Excel 2007 : Fórmulas y funciones* Anaya Multimedia.

Melero Balcázar, A. (2009). El comodín de las entidades locales. Remanente de tesorería.

Historia, práctica y revisión. *Auditoría Pública: Revista De Los Órganos Autónomos De Control Externo*, (49), 99-110.

MercoEmpresas. Ranking empresas 2014. Hemendik eskuratua:

<http://www.merco.info/es/countries/4/rankings/2>

Real decreto legislativo 2/2004, de 5 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la ley reguladora de las haciendas locales (vigente hasta el 15 de julio de 2015), (2004).

Plan general de contabilidad pública 2010. *Orden EHA/1037/2010, de 13 de abril*, (2010).

Ministerio de Hacienda y Administración Pública. *Agencia tributaria: Fiscalidad autonómica*.

Hemendik eskuratua:

http://www.agenciatributaria.es/AEAT.fisterritorial/Inicio_es_ES/Menu_/Fiscalidad_Autonómica/Fiscalidad_Autonómica.shtml

Ministerio de Hacienda y Administración Pública. Estadísticas. Hemendik eskuratua:

<http://www.sepg.pap.minhap.gob.es/sitios/sepg/es-ES/Presupuestos/Estadisticas/Paginas/Estadisticas.aspx>

Ministerio de Hacienda y Administración Pública. *Mecanismo de financiación para el pago de proveedores de las Comunidades autónomas*. Hemendik eskuratua:

<http://www.minhap.gob.es/eu-ES/Areas%20Tematicas/Financiacion%20Autonomica/Paginas/PagoProveedoresCCAA.aspx>

Ministerio de Hacienda y Administración Pública. *Presupuestos, cuentas públicas y sistemas de financiación*. Hemendik eskuratua: <http://www.minhap.gob.es/es->

[ES/CDI/PresupuestosCuentaspublicasysistemasdefinanciacion/Paginas/presupuestosCuentaspublicassistemasfinanciacion.aspx](http://www.meh.es/CDI/PresupuestosCuentaspublicasysistemasdefinanciacion/Paginas/presupuestosCuentaspublicassistemasfinanciacion.aspx)

